



“Zornotzako kartzela emakumeak usteltzeko prestatutako lekua zen”

Ascensión Badiola historialariak Zornotzako Emakumeen Kartzela Zentralari buruzko liburua kaleratu du. Gaur egun El Carmelo ikastetxea dagoen eraikinak hartu zuen emakumeen kartzela, 1939tik 1947ra. **2-3**

Elorrioko ziklo-kros proba Munduko Kopara batzeko lan egingo dute

Elorrio | Domekako ziklo-krosaren ondoren, antolatzaileak Espainiako Txirrindularitza Federazioagaz batuko dira, Munduko Kopari buruz berba egiteko.

21. orrialdea



Berriz Hardcore Krew-k musika festibala antolatu du, laugarrenez

Kultura | Nork Zer?!, Revert, Cuero, No Regret, Unfix, Arma X eta Stronger Together taldeek hardcore doinuak biltzen dituen jaialdian parte hartuko dute. Zapatuan, urriak 26, 18:00etan hasita, Berrizko Hiltgeixen.

17. orrialdean



 **Seguros Bilbao**

**RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda**

Landako etorbidea, 1 DURANGO
Tel.: 946 202 710 - Faxa: 946 816 577
jrueda@segurosbilbao.com



Ascensión Badiola Ariztimuño
Historia Garaikidean
doktorea
Bilbo | 1961

“Durangoko eta Zornotzako emakumeen kartzelak bereziki gogorak izan ziren, zuzendaritzak ahaztuta eta utzita izan zituelako”

'Individuas peligrosas' liburuan Zornotzako Emakumeen Kartzela Zentralari buruzko ikerketa kaleratu du Badiolak

ZORNOTZA • JONE GUENETXEA

Gaur egun El Carmelo ikastetxea dagoen eraikina emakumeen kartzela izan zen 1939 eta 1947. urteen artean. Datu gutxi ezagutzen dira presondegiaren inguruan. Ascensión Badiola historialariak liburu batean jaso ditu dokumentazio eta lekukotza guztiak.

Zein testuingurutan sortu zen Zornotzako kartzela?

Estatu osoan, emakumeentzako kartzelen zirkuitu bat sortu zuten. Katalunian hasi ziren: Tarragonan, Gironan, Bartzelonan... Mallorcakoa ere oso gogorra izan zen. Andaluzian ere kartzela asko sortu zituzten. Garrantzitsuena Malagakoa izan zen. Madrilen Ventasekoa zegoen, *Las Trece Rosas* emakume

taldea egon zenekoa. Guadalajaran, Oviedon...

Eta Euskal Herrian?

Saturraraneok, Durangokoak eta Zornotzakoak kategoria bera izan zuten. 1939-1940. urteen artean sortutako kartzelak izan ziren, emakumeen kartzela zentral bezala. Emakume errepublikarrak zeuden han, eta kartzela batetik bestera eramaten zituzten.

Kartzelen inguruan egiten zuten propaganda oso bestelakoa zen.

Redención deituriko aldizkari bat kaleratzen zuten propaganda legez. Propaganda horretan, presoek jasotako hezkuntza eta horrelakoak aipatzen zituzten. Zornotzako kartzelako argazki bat kaleratu zuten, emakume batzuk josteko tailer batean ageri direna. Argazki horre-

tarako, bereziki prestatu zituzten. Horixe da kartzela horretaz ezagutzen den argazki bakarra. Tailer horretan errejimenerako jantziak egiten zituzten. Irudi hori eman gura zuten, kartzelaren helburuetariko bat berreziketa zelako, mentalitatea aldatzea. Gorriak izateari uztea gura zuten, eta frankismoko emakume idealak sortzea: emakume katolikoa, bere etxea zaintzen zuena, ama ona, emazte ona. Beraz, miliziana lez ariztetik oso urrun zegoen eredu bat zen. Emakume hauek gogor zigortu zituzten. Askok kartzelan amaitu zuten eta asko fusilatu egin zituzten.

“

Emakume asko bost edo sei kartzelatan egon ziren urte berean. Izugarria izan zen”

Zaila izan da liburuan jasotzen duzun informazio guztia eskuratzea?

Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta, gerraosteko errepresioari buruzko tesia egin nuen 2015ean. Horrela jakin nuen kartzela hauek existitu zirela. Saturraranera joan nintzen eta 1.200 presoren espedienteak ikusi nituen. Dokumentu horietan, Zornotzako kartzelako espedienteen karatulak ikusi nituen. Durangokoak ere bai. Horrela

konturatu nintzen emakumeen kartzela gehiago egon zirela, Saturraraneokaz gainera. Saturraraneokari buruz informazio gehiago dago, espedienteak Oñatiko Artxi-bio Hitsorikoan daudelako. Orueko Txaletean zegoen Bilboko kartzela probintzialera etorri nintzen, eta, Zornotzakoari buruz galdetzean, ez zuten informaziorik.

Non aurkitu duzu dokumentazioa?

Saturraranen egoniko emakumeen espedienteak ikusita, gertatutakoa berreraikitzen ahalegindu naiz. Alde batetik bestera eramaten zituzten kartzela-zirkuitu horretan. Mallorcatik Saturraranera, handik Zornotzara... Emakume asko bost edo sei kartzelatan egon ziren urte berean. Izugarria izan zen. Lekualdatzeak trenez egiten zituzten, ganadua eramateko bagoietan.

Zirkuitu horretako beste kartzela batzuetan ere egon daiteke informazioa?

Bai. Estatuko beste kartzela batzuei buruz historialariak egiten ari diren ikerketak ere informazio iturri izan ditut. Mallorcan eta Valentzian egin dituzte ikerketak, esate baterako.

Aurkitu duzu lekukotzarik?

Tomasa Cuevasen lekukotza izan da garrantzitsuena. Hiru liburu idatzi zituen, Zornotzan eta beste kartzela askotan egondako presoen lekukotzekin. Komunista aktiboa zen. Bere lanari eskerrak, asko dakigu Zornotzako kartzelari bu-

ruz. Bestalde, Youtuben ere alderdi komunistako emakumeen testigantzak daude. Lekukoetariko bat Trinidad Gallego emagina da. Tomasa Cuevasen batera egon zen preso Zornotzan. Gallegok ama eta amama zituen kartzelan. Hirurek bat egin zuten Zornotzakoan. Emakume honek kontatzen du lurlean lo egiten zutela, ezelango berogailurik barik sasoi hartako neguetan. Emakume bat erditu behar zenean edo umeren bat gaixorik ipintzen zenean mojei deitzen zieten, baina ez zieten jaramonik egiten. Kartzela bakoitzak mediku bat zuen, baina hildakoak egiaztatzerako baino ez zen joaten.

Mojek zein paper zuten kartzelan?

Simona Aspiroz zen nagusia, eta gogor eutsi zion diziplinari. Mojek paper garrantzitsuena izan zuten emakumeen kartzelatan, boterea eman zitelako. Gizonen kartzelatan kudeaketaz eta intendentziaz arduratzen ziren, baina emakumeenetan diziplina batzordeko kideak ziren. Beraz, zigorrak eta baldintzapeko askatasuna euren eskuan zegoen. Lekukotzek diotenez, berak gura zuena egin ezean, gutunak apurtu egiten zituen Aspirozek. Beste lekuko batek dioenez, emakume baten umea hil egin zen eta ez zioten agurtzen ere utzi, ez zuelako bere esana egiten. Beraz, kartzelako egoerari emakumeenganako biolentzia hau ere gehitu behar zaio.

Egon zen Durangaldeko emakumerik Zornotzan?

Ezingo nuke ziurtatu, baina ditugun datuen arabera, ez. Esango nuke hemengo emakumeak beste kartzela batzuetara eraman zituztela. Adibide lez, espioiak izan ziren emakumeak, Red Alava-koak, Madrilera eraman zituzten. Emakumeak euren ingurutik urruntzea eta etenik barik lekualdatzea zen estrategia. Emakumeak alde guztietatik deserrotzea gura zuten, lagunik ez egiteko eta beti etsaiaren menpe egoteko.

Zein zen Zornotzan preso zeuden emakumeen eguneroko bizitza?

Kartzela guztiek arautegi bera zuten. Goizetan, jaiki eta gero, ur beroa ematen zieten gosaltzeko. Ondoren, mezak eta errezuak egiten zituzten. Kartzelako zirkuituan denbora bat zeramatenei, tailerretan lan egiteko baimena ematen zieten. Zornotzan eta estatuko iparraldeko kartzeletan, josteko tailerrak nagusitu ziren.

Baldintza oso gogorak zituzten.

Zornotzako presoek gose greba bat egin zuten egoera hori salatzeko. Tomasa Cuevasen bitartez jakin ahal izan dugunez, metrailatu egingo zituela mehatxatu zituen kartzelako zuzendariak. Hala ere, hurrengo egunean, eman zieten ur beroari ortuariren bat bota zioten. Kartzela hau emakumeak usteltzeko prestatutako lekua zen. Zirkuitu osoa horrelakoa zen.

Zeintzuk ezaugarri zituen Zornotzako kartzelak?

Durangoko eta Zornotzako emakumeen kartzelak bereziki gogorak izan zirela esango nuke, kartzeletako zuzendaritzak ahaztuta eta utzita izan zituelako. Orokorrean hobekuntzaren bat egiten bazuten, kartzela bi hauek ez ziren aipatu ere egiten. Hala ere, Zornotzakoak beste kartzela batzuk baino askoz ere denbora gehiago iraun zuen zabalik. Saturrarane-koa 1944an itxi zuten, eta Zornotzako, 1947an. Adibide bat ipintzearen, kartzela guztietan gas anhidridodun kamerak zituzten arropak desinfektatzeko. Zorriak,

“**Emakumeak alde guztietatik deserrotzea gura zuten, lagunik ez egiteko eta beti etsaiaren menpe egoteko**”

arkakusoak... denerik izaten zuten emakume presoek. Kamera hauek hiru kartzela probintzietan zeuden. Saturraranen proiektu bat zegoen. Durangon eta Zornotzan, ezta proiekturik ere. Beste adibide bat: Zornotzako kartzelan aska txiki bat zuten norbere burua garbitzeko, eta ia 1.000 emakume

zeuden kartzelan. Ondarretan, gerraren hasieran horrela izan zen, baina gero dutxak egin zizkieten. Zornotzan, ia kartzela zarratzean egin zituzten dutxak.

Zortzi urtean, zenbat emakume pasatu ziren Zornotzako kartzelatik?

Ez dago argi. Nik 1.234 izen bildu ditut. Zornotzako kartzelatik 958 emakumeri baldintzapeko askatasuna eman zieten. Zornotzako

“**Saturraranen egondako emakumeen espedienteak ikusita, gertatutakoa berreraikitzen ahalegindu naiz**”

errolan 200 emakumetik gora dokumentatu nituen. Zirkuituan hainbeste mugitzen zirenez, zaila da datu hori ematea. Txostenetan agertzen denez, momentu puntualetan 700-1.000 emakume izan ziren bertan. Azken urtean, 1947an, 300 zeuden. Preso batzuei baldintzapeko askatasuna eman zieten, eta beste asko Segovian zabaldu zuten kartzela berri batera eraman zituzten. Sasoi hartan, indultuak eta zigorren errebisioak egin zituzten. Askok hil arteko zigorra zuten eta hiru urtera murriztu zieten kondena.

Harrigarria da gaur egunera arte inork gai hau aztertu ez izana.

Kartzela guztiekin gertatu da hau. Nik neuk 2008an jakin nuen Deustuko unibertsitatea kontzentrazio esparrua izan zela. Gauza gutxi dakizkigu. Gerra zibila trauma handia izan da, eta izaten jarraitzen du. Bere sasoiaren, ez zuten honetaz berba egin, ez alde batekoek ez beste-koek. Ni ikertzen hasi nintzen gehiago jakin gura nuelako, egia jakin gura nuelako.

Liburuan hainbat datu eta izen publikatu dituzu. Baten bat hartu emanean ipini da zugaz?

Oraingoz, pertsona batek idatzi dit eta ilusio handia egin dit. Pertsona honen ama eta amama Extremadurakoak ziren eta Zornotzako kartzelan egon ziren. Amak hiru urte zituen kartzela honetan sartu zutenean. Hiru urte zituztenean, umeak banandu egiten zituzten amengandik. Kartzela guztietako politika izan zen. Gerra bat izan zenez, eta kasu askotan familiarik ez zegoenez, umeak adopzioan eman zituzten. Libre gelditzera-koan, amek ezin izan zituzten euren umeak aurkitu. Durangoren kasuan, adibidez, preso batzuek kontatzen dute herriko familiek zaindu zizkietela umeak, amak kartzelatik irten arte. Zornotzaren kasuan aurkitu dudatu bakarria kartzelan hildako zazpi umerena da.



Zornotzako kartzelaren argazkia karmeldarrek jaso zutenean.



El Carmelo ikastetxea, gaur egun.



Josteko tailerren irudi propagandistikoa. Zornotzako Kartzela Zentraleko irudia. Patronatoaren Memoria 1940.



Durango hilerrian dagoen kapera-mausoleoaren argazkia.

Kendutako ikur frankisten zerrendan Durango kapera sartzea kritikatu du Durango 1936k

Kultur elkarteak sarritan salatu du Durango Udalak kapera hori birmoldatu izana; instituzioetara bidalitako gutunean diote ez dutela sinbolo hori kenduztat onartzen

DURANGO • JONE GUENETXEA

Gogora memoria institutuak ikur frankistak kentzeko ekimenen inguruko txostena kaleratu du. EAEn kendu diren ikurrak kontabilizatu dituzte. Guztira, 1.523 baino gehiago izan dira. 2016tik aurrera 1.022 kendu dituztela dio Gogorak, "horien artean elementuak, ohorezko tituluak eta kaleen izenak".

Txostenean, oraindino ere ikur frankistaren bat duten udalerriak zerrendatzen dituzte, 15 guztira.

Txostenak dioenez, Durangaldean ikur bakarra gelditzen da. Zaldibarko etxe plaka bat

Durangaldeko ikurrak

Durangaldean, etxeetako 21 plaka kendu dituzte Durangon, txostenaren arabera. Eta Abadiñon, zazpi. Bestalde, Mañarian, Saibigaineko gurutzean ikur frankista kenduta dagoela azaltzen da.

Durango hilerrian dagoen "martirren eta erorien" omenezko

kapera-mausoleoa agertzen da. Durango hilerriko ikurra kenduztat agertzen da Gogora institutuaren txostenean. Durango 1936 kultur elkarteak dioenez, sinbolo hori ez dago ezabatuta. "Sinbolo bat kendu barik dago: Durango hilerrian dagoen kapera kristau

Agurrik Gabeak ekitaldia Plateruenean, gaur

Durango 1936 elkarteak hamabigarrenez antolatu du Agurrik Gabeak ekitaldia. Gaur izango da, urriak 25. Aurtengo gai nagusia *Trabajadoreak: esklabu lanera behartuak* izango da. Hizlariak Fernando Mendiola eta Edurne Beaumont *Esclavos del franquismo en el Pirineo* liburuaren egileak izango dira. Durango Plateruena Kafe Antzokian ipini dute hitzordua, 20:00etan.

bat, gurutze eta guzti, faxistek euren hildakoen omenez eraikia". Elkarteak gogoratu duenez, kapera hori Durango Udalak birmoldatu egin zuen. Durango 1936k behin eta berriro kritikatu izan du Durango Udalak gai honetan izan duen jarrera. Kapera horretan, oroimen ekitaldia egiten da martxoaren 31ko bonbardaketaren harira, eta elkarteak sarri plazaratu du kapera-mausoleoaren inguruan duen jarrera: "Gu horren aurka geunden, sinbolo faxista zena birmoldatzeagatik, gordetzeagatik, eta bertan faxistek hildako gure senide errepublikazaleen izenak jartzeagatik borroeroen izenekin batera". Gogora institutuaren txostena ezagutzeari, Durango 1936 kultur elkarteak gutuna bidali die Jaurlaritzari, Durango Udalari eta Gogora institutuari, gai honen inguruan duten iritzia emateko.

Zaldibarko plaka

Gogoraren txostenak dioenez, Durangaldean ikur bakarra gelditzen da kentzeko. Zaldibarko etxe plaka bat da kendu barik dagoen sinboloa.



Kapera barruan izenak agertzen diren horma dago.

Durango 1936 elkartearen gutuna Eusko Jaurlaritzari, Gogora Institutuari eta Durango Udalari

DURANGO 1936 ELKARTEA

Harriduraz irakurri dugu Eusko Jaurlaritzak argitaratu duen txostena EAEn dagoen sinbologia frankistari buruz. Harriduraz, faxistek Durango eraikitako kapera kristau faxista kenduztat aipatzen dutelako. Harritu egiten gaitu, badakigulako eta badakitelako goiko hiru erakundeek, Durango badagoela frankistek eraikitako sinbolo bat kendu barik: Durango hilerrian dagoen kapera kristau bat, gurutze eta guzti, faxistek euren hildakoen omenez eraikia.

Izan ere, Durango 1936 Kultur Elkarteak kapera kristau hori Durango Udalak birmoldatu zuenean jaio zen. Durango Udalak Adiskidetze eta Bakea deitu zion kapera faxista birmoldatuari, eta bere barruan gerran hildako guztien izen-abizenak idatzi zituen. Gu horren aurka geunden, eta horrela adierazi genion Durango Udalari, behin eta berriz, ahoz eta idatziz, sinbolo faxista zena birmoldatzeagatik, gordetzeagatik, eta bertan faxistek hildako gure senide errepublikazaleen izenak jartzeagatik borroeroen izenekin batera. Hemerotekan begiratzea baino ez dago.

Kaperak bere kristautasunari eusten dio eta gurutze frankista

gorde da bertan. Berdin izan zitzaie Durango agintariei han jarritako izen-abizenak kristauak ziren ala ez, eta aitortze-za bidali zituzten, jainkoaren izenean fusilatutakoak zein bide-bazterretan hildakoak, eta egundo aurkitu ez direnak, hots, gorpuk ere lapurtu zizkigutena. Kristautasunean egin behar ei dugu Adiskidetzea eta Bakea, eta gainera gurutze faxistaren bedeinkapenpean. Demokrazia, adiskidetzea eta bakea ulertzeko modu bitxia.

Harritu egiten gaitu Durango bizi den Lehendakariak hori ez jakitea, sinbologia faxista

"Kaperak bere kristautasunari eusten dio eta gurutze frankista gorde da bertan"

oraindik ere Durango dagoela. Oker ez bagaude, izan da bertan martxoaren 31ko ekitaldietan. Ez al du ikusi? Ez al du galdetu?

Zer esanik ez Gogora Institutuari buruz. Zer esanik ez Durango Udalari buruz. Ez al dakite? Zer egin behar dugu jakin dezaten eta kontuan hartu dezaten?

anboto komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2019ko urriaren 25a
17. urtea - 781. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

“Azken ikerketek diote lotura gutxi dagoela ehunen lesio egoeren eta min kronikoaren artean”

Josu Zabala fisioterapeuta min kronikoaren inguruko tesi bat egiten dabil eta boluntarioak behar ditu berau aurrera eramateko



Josu Zabala, Durangon duen Hiru Fisioterapia zentroaren atarian.

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Bere tesia egin ahal izateko, giza talde bi behar ditu: inongo minik ez dutenak eta lepoko min kronikoa dutenak. Azken horiek doako lau sesio jasoko dituzte.

Zertan datza zure tesia?

Mina aztertzen nabil, batez ere min kronikoa. Azken ikerketek diote

lotura gutxi dagoela ehunen lesio egoeraren eta min kronikoaren artean. Kasu horietan, garunak egiten duen interpretazio bat da mina, hipotesi batzuetatik abiatuta. Min horren oinarria zer punturaino den ehunen lesioa eta zer punturaino den prozesu neurofisiologiko aldatua neurtu gura dut nire tesian. Test psikofisikoen bitartez, neu-

rona baten hiperkitzikadura estimulatuko dut, eta kitzikadura hori zenbaterainokoa den neurtuko dut. Neurona bat egoera normal batean badago, zaila da kitzikadura hori lortzea, eta alderantziz. Bestetik, garunak mina inhibituzeko gaitasuna du eta neurtuko dudun bigarren balioa pertsona bakoitzaren inhibizio gaitasuna da. Tesiaren helburua

da pertsonak eskala batean kokatzea, egoera neurofisiologikoaren arabera.

Zelako boluntarioak behar dituzu?

Minik ez dutenak eta gutxienez hiru hilabetean lepoko min kronikoa dutenak behar ditut. Prest daudenak Antso Estegiz kaleko Hiru Fisioterapiatik igaro daitezke.

Min kronikoa duenak zer egin dezake bere egoera hobetzeko?

Lehenengo eta behin, profesional batengana jo behar du, gaitz larriarik duen jakiteko. Ehunek justifikatzen ez duten mina badago, garunak sortu duen arrisku ebaluazioa berriztu behar da. Izan ere, min kronikoa, garunaren iritzi, ehunek hiltzeko duten arriskuaren hipotesi bat da. Hipotesi hau sortzeko, informazio asko erabiltzen du garunak; usteak, profesionalen iritziak, askotan okerrak direnak...

Kasu hauetan, minaren neurozientzian oinarrituriko pedagogia egin behar zaio pazienteari, garunak hipotesiak berrikus ditzan. Pedagogia eta pertzepzio aldaketa eragiten duten ariketez gainera, ariketa fisiko gradualak izango da min kronikoan eragin positiborik handiena izango duena. Ariketa fisikoak garunak min kronikoari atxikituriko patroia depresiboa aldatzen laguntzen du, parte-hartze aktiboa bultzatuz.

Seme-alabekin euskaraz jolasteko ohiturak sustatuko dituzte Mañarian, gaur

MAÑARIA • J.D.

Durangoko Merinaldeko Aمان-komunazgoak *Familiak euskaraz olgetan* izeneko ekimena gauzatuko du gaur, 18:00etatik 19:00etara, Mañariko liburutegi zaharrean. Ekimena hirutik bost urtera arteko haurrei eta euren gurasoei bideratuta dago. Jolasterako orduan, euskara erabiltzeko ohiturak sustatzea da helburua. Horretarako, euskarazko jolasak egongo dira liburutegian, eta euskarazko kantak abestuko dituzte.

Otxandioko Udalak plazako zuhaitz bi bota ditu, gaixorik zeudelako

OTXANDIO • J.D.

Udaletxe pareko plazan eta bolatokiaren ondoan zeuden zuhaitz bi botatzea erabaki du udalak. Arbola bi horiek gaixorik zeuden eta, badaezpada, handik kentzea erabaki dute, udal ordezkariak azaldu dutenez. Hala ere, espazio hori ez da hutsik geratuko. Aurreratu dutenez, zuhaitz horiek zeuden toki berean beste bi landatuko dituzte negu honetan zehar.

Durangoko Suargi elkarteak Kobaneko erasoak salatu ditu

Turkiak egindako erasoaren aurrean, "erantzun irmoa" ematea eskatu dio elkarteak Nazioarteko Komunitateari

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Suargi elkarteak gaitzetsi egin ditu Turkiak urriaren hasieran Kobane hirian egindako erasoak. Roshan Abadik, Kobane hiriko alkateak, "erabateko gerra egoeran" daudela ohartarazi

du. Kobane hiria Durangogaz senidetuta dago 2017tik hona, eta Suargik "bihotzez eskertu" ditu durangarrek egunotan izandako elkertasun keinuak. Turkiak urriaren 9an hasi zuen Siriako Rojava eskualdearen inbasioa.



2018ko abuztuan Kobaneko 'zero guneak' zuen itxura. SUARGI ELKARTEA.

Hasi dira Durangoko tren geltokirako sarbide berria egokitze lanak egiten

Eskailera mekanikoak instalatuko dituzte eta tapatu bako hainbat gune estaliko dituzte



Sarbide berria ekialdean egongo da, geltoki zaharra zegoen aldean.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Euskal Trenbide Sareak Durangoko tren geltokia hobetzeko lanak hasi ditu. Hainbat aldaketa egingo dituzte, eta, horien artean, geltokirako sarbide berria ipintzea izango da nagusia. Eskailera mekaniko bat eta oinezkoentzako beste bat eraikiko dituzte horretarako. Bestalde, gaur gaurkoz tapatu barik dauden hainbat gune estali egingo dituzte: banaketa gunea eta terminaleko galeria ingurua. Euri-uren saneamendu instalazioak ipintzea ere aurreikusita dago, eta baita suteen kontrako instalazioak egokitzea ere. Argiztapena eta instalazio elektrikoak ere hobetuko dituzte. Lanak ondo bidean badoaz, 13 hilabete barru amaituta egongo dira. Obren aurrekontua 1.274.000 eurokoa dela azaldu dute ETSko ordezkariak.

Elorrioko Udalak %1 igoko ditu zergak eta tasak datorren urtean

Elorrioko Udaleko hiru alderdien aldeko botoekin ordenantza fiskalak onartu dituzte



Astlehenean egin zuten osoko bilkura.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Astlehenean egindako osoko bilkuran, 2020rako zergak eta tasak %1 igotzea onartu zuten. Elorrioko Udaleko hiru alderdien aldeko botoekin datorren urterako ordenantza fiskalak onartu zituzten. "Zerbitzu publikoak duinak izatea gura badugu, igoera bat izan behar da. Gainera, diru-sarrera eta gastuetan oreka bat egon behar da; beraz, derrigorrez zertxobait igo behar ziren zerga eta tasak", adierazi zien Idoia Buruagak kazetariei bilkuraren ondoren. Horrez gainera, ordenantza fiskalak lantzerakoan, oposiziotik proposamenak jaso zituztela eta horiek ere kontuan izan

zituztela adierazi zuen alkateak. 2020rako ezarritako hobarien artean, besteak beste, EAJk proposatutako hobari bat dagoela jakitera eman zuen alkateak. Orain arte, auto elektrikoak zituztenek zergetan %50eko bonifikazioa zuten. Datorren urtean, oster, %95eko hobaria izango dute. "Aldaketa klimatikoaren gaiari helduz, aldaketa

Auto elektrikoak dituztenek zergetan %95eko hobaria izango dutela azaldu du udalak

txiki batzuk egitea gura izan ditugu. Orduan, gai horretan esfortzu bat egiten dutenek, auto elektrikoak erosten dituztenek esaterako, gaur egun dituzten hobariak baino handiagoak izatea planteatu dugu", adierazi zuen Joseba Muxika EAJ-ren bozeramaileak.

Aldaketa klimatikoaren gaiagaz jarraituz, Elorrioko Udalak hainbat pauso eman dituela eta emango dituela azaldu zuen Buruagak. Bilkuran aipatu zuen eskualdeko lehenengo udala izan direla auto elektrikoentzat errenergia puntu bat ipintzen, eta epe laburrean udaltzainek auto elektrikoa izango dutela aipatu zuen.

Abadiñoako gaztetxeak 21. urteurrena ospatuko du

Abadiñoako Gazte Asanbladak egitarau oparoa osatu du urteurrena ospatzeko; 23an hasi ziren ospakizunekin

ABADIÑO • A.M.

Asteon, urriaren 23an, 21 urte bete dira Abadiñoak gaztetxea duenetik. Ospatzeko, txopoa altxatu zuten eta dantzariak euren saioa eskaini zuten. Ondoren, luntxa egon zen eta Bittor Altubek eta Gorka Pagonabarragak bertsoak kantatu zituzten. Gaur, urriak 25, futbito txapelketa jokatu dute.

Zapaturako, egun osoko plana prestatu dute gazteek. Goizean bizikleta martxa egingo dute, eta, gero, futbito txapelketako finala

jokatuko dute. 15:00etan gaztetxean batuko dira, bazkaltzeko; asko izanez gero, probalekuan izango da bazkaria. Arratsaldeko "karropoteoaren" eta jokoen ondoren, kontzertuekin itxiko dute eguna. Turbot, Personas Muertas eta Azken Hatsa taldeek eskainiko dituzte kontzertuak.

Domekarako ere prestatu dituzte jarduerak. 16:00etan, bezperan zikindutakoa batuko dute. Amaitzeko, txokolote beroa hartuko dute, 20:00etan.



Iazko urteurreneko ospakizun bat.

Pedro San Roman Gomez abadiñarrak irabazi du Izurtzako argazki lehiaketa

Bigarren eta hirugarren sariak Rebeca Barandika izurtzarrak irabazi ditu

IZURTZA • JOSEBA DERTEANO

Izurtzako jaietako argazki lehiaketako irabazleak aukeratu dituzte. Pedro San Roman Gomez abadiñarrak irabazi du lehenengo saria, Izurtzako dantzariak dantzan ageri diren argazki batez. Bigarren eta hirugarren sariak Rebeca Barandika izurtzarraren argazkientzat izan dira.

Argazki lehiaketan geroago eta jende gutxiagok parte hartzen duenez, datorren urtera begira beste eredu baten bila dabil udala. Egutegi baterako argazki lehiaketa da aukera bat. Ideia hori herritarrei planteatuko diete, urriaren 30ean, 19:00etan, udaletxean egingo den Tokiko Agenda 21 batzarrean.



Aurtengo jaietan egindako lehiaketako argazki irabazlea.

Udalak diru-laguntzak emango ditu putzu septikoak garbi mantentzeko

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Udalak diru-laguntzak emango ditu etxebizitzetako putzu septikoak eta hondakin uren saneamendurako araztegiak garbitzeko. Laguntzok eskatzeko epea urriaren 31n amaituko da. Kostuaren %50era arte lagunduko du diruz udalak, eta 25.000 euroko diru atala lotu dute eskariei aurre egiteko.

Etxebizitzetan putzu septiko berriak ipintzeko eta zaharrak berritzeko diru-laguntzak ere emango dituzte Iurretan. Kasu honetan ere, instalazioko kostuaren erdira arte lagunduko dute diruz, gehienez ere 3.000 euroko zenbatekoan. Diru-laguntza hauetarako ere 25.000 euroko atala lotu dute.

Zaldibarko aurtengo Neguko Azokan garagardo artesanala egongo da dastagai

ZALDIBAR • A.M.

Urtero legez, azaroan Neguko Azoka egingo dute Zaldibarren; aurten, hilaren 24an. Ohiko produktuez gainera, (gazta, ogia, fruta, barazkiak, eztia eta txakolina), aurten hiru nobedade aurkeztuko dituzte azokan. Batetik, garagardo artisana-laren dastaketa egingo dute. Horrez gainera, arrautza eta marmelada ekologikoak erosi eta dastatu ahalko dira. Urtero legez, 30 bat postuk osatuko dute azoka. Leku faltagatik, eskaera batzuk kanpoan geratu behar izan dira.

Bestalde, iaz legez, sagardoa zelan egiten den ikusteko aukera egongo da, Jose Antonio Elustondoren eskutik.

Musikariak eszenatokian eta dantza-maisua publikoan, Errebal taldearen errezeta mallabitarrak dantzan ipintzeko

Añorgako laukoteak dantzaldi gidatua eskainiko du gaur arratsaldean Mallabiko plazan, Urriko Jaien barruan

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Dantzarako zaletasuna dutenek euren afizioa praktikan ipintzeko aukera izango dute gaur arratsaldean Mallabian. Urriko Jaien barruan, Añorgako Errebal taldeak musika-gaz lagundutako dantzaldi gidatua eskainiko du plazan. Ekitaldia 19:00etan hasiko da.

Ixak Arruti gitarristak, Eneko Dorronsoro trikitilariak eta Gari Otamendi arrabita-jotzaileak ipiniko dute musika eszenatokian. Bitartean, taldeko laugarren kidea, Jokin Otamendi dantza-maisua, publiko artean egongo da dantzan, eta haren pausoei jarraitu ahalko diete plazan batzen diren dantza zaleek. Otamendik hogeitun urtetik gora daramatza lanean dantza-maisu legez, eta beste hainbeste pla-

zako dantzetan gidari. Aurten 50 urte egin dituen Gazte Alai dantza taldeak antolatu du ekimena.

Dantzari berrien bila

Ekimenak antolatzen ez ezik, dantzari berrien bila ere badabil Gazte Alai. Gaur egun, umeen talde bi-

dituzte, eta nagusia Andra Mari jaietarako batzen da. Belaunaldi bien artean urte batzuetako alde dagoela-eta, deialdia egin dute nagusien taldea indartzeko. 16 urtetik gorako mallabitarrei zabalik dago eta interesatuek liburutegian eman dezakete izena, urriaren

31ra arte. Dantzan jakitea ez dela beharrezkoa azaldu du taldeko Eneritz Aranburuk. "Hutsetik ere hasi daiteke. Dantzarako gogoia dutenei horretarako aukera eskaintzea eta dantzak herrian duen tradizioa bizirik mantentzea dira helburuak", adierazi du.



Errebal taldekoek urte askotako esperientzia dute dantzaldi gidatuak egiten.

Pilota erakusketa eta partiduak Berrizen, Ondarearen Europako Jardunaldien barruan

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Durangaldeko ondarea ikertu, zaindu eta zabaltzeko asmoz, Gerediaga Elkartek hainbat ekimen antolatu ditu urrirako Ondarearen Europako Jardunaldien barruan. Asteburu honetarako, *Pilota jokoa: Zelaietatik Pilotalekura* ekimena antolatu du. Ekimen horren barruan, erakusketa bat, erakustaldi bat eta pilota partiduak izango dira. Partiduak 17:00etan izango dira, Berrizburu frontoian.

Gorulariak, lihoaren dantza

Europako Jardunaldietako azken ekimena urriaren 27an izango da, Iurretan. *Gorulariak, lihoaren dantza* berbaldia eta dantza erakustaldia egongo dira Ibarretxe Kultur Etxean, domekan, 12:00etan.

Garain ziklo-kros proba antolatu dute azaroaren 23rako

GARAI • JOSEBA DERTEANO

Garaiko Triatloi Taldeak ekimen berri bat antolatuko du azaroaren 23ko zapaturako: Garaiko Ziklo-kros Sari Nagusia. Gainera, Bizkaiako txapeldunak erabakiko dituzte lasterketa horretan.

Master, kadete, junior eta open mailetan lehiatuko da proba. Zir-

kuituak ia hiru kilometro izango ditu. Herriko tabernaren parean hasi eta amaituko da. Handik frontoira igoko dira, beheranzko bidea hasi aurretik. Frontoiaren atzealdetik txaleten inguruan dagoen zelaira jaitsiko dira parte-hartzaileak. Box gunea hantxe ipiniko dute. Handik, berriro gorako bidea hartuko dute ziklistek. Probaren ondoren, partaideek frontoiko dutxak erabili ahal izango dituzte. Lasterketako izen-ematea Euskadiko Txirrindularitza Federazioko webgunean egin daiteke.

Apatako tren geltoki zaharraren ondoko biltegia bota dute

Eraikina "hondatuta" zegoelako bota dutela dio udalak

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Apatako tren geltoki zaharraren ondoan zegoen biltegia bota du, aste honetan, Atxondoko Udalak. Ohar bitartez jakinarazi dutenez, eraikina "oso txarto" egon da eta segurtasun arrazoiengatik eraba-

ki dute berau botatzea. Lan hauek 13.793 euroko aurrekontua izan dute, eta horietatik 10.793 euro eraikina eraisteko erabili dituztela azaldu dute udaletik. Gainerako 3.000 euroak proiektua erredaktatzeko izan dira.



Segurtasun arrazoiengatik bota dute eraikina.

ZORNOTZA
LANGILE HEZKETA
KASTITZE INTEGRATUA

EMPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SALA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y POLÍTICAS SOCIALES

LANGILE ETA LANGABETUEI ZUZENDUTAKO IKASTAROAK

K. LANBIDE	IKASTAROAK	ORDUAK
GIZARTE ETA KULTUR ZERBITZUAK		
19480022	Arreta soziosanitarioko esku-hartzeak erakundeetan (MF1018_2)	70
19480023	Mendeko pertsonen animazio soziala erakundeetan (UF0129)	30
19480024	Erakundeetan dauden mendeko pertsonen eguneroko jarduerak mantentzea eta hobetzea (UF0130)	50
19480025	Erakundeetan dauden mendeko pertsonekin komunikatzeko teknikak (UF0131)	50
FABRIKAZIO MEKANIKOIA		
19480011	Piezak txirbil-harroketara bidez egiteko cnc programak egitea (UF0879)	80
18480168	Txirbil-harroketara bidezko mekanizazio prozesua (TORNO ETA FRESA) (UF0881)	80
18480172	Fabrikazio mekanikoko produktuen automatismoen diseinua (UF0450)	50
19480009	Soldadura karbono-altzairuzko xafla eta profitez estalitako elektrodoekin eta errutilozko elektrodoekin (UF1623)	90
19480010	Soldadura karbono-altzairuzko xafla eta profitez estalitako elektrodoekin eta oinarriko elektrodoekin (UF1624)	90
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA		
19480015	Automatizazio industrialeko sistematan matxurak diagnostikatzea eta mantentze zuzentzailea egitea (UF2238)	90
INSTALATZEA ETA MANTENTZEA		
19480013	Linea automatizatuen sistema mekanikoak, pneumatikoak eta hidraulikoak (UF0624)	70
18480170	Linea automatizatuetako funtzionamenduen programazioa eta kontrola (UF0626)	70
INFORMATIKA ETA KOMUNIKAZIOAK		
19480102	COBOL analista programatzailea (IFCD003PO)	210
19480103	Microsoft Azuren soluzioen inplementazioa IT azpigiturretan (IFCD20)	100
PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIAK Langabetuak (praktikak enpresan)		
19480016	Automatizazio-sistema industrialen muntaketa eta zainketa (ELEM0311)	390

Informazioa eta izen ematea:
www.lanbide.euskadi.eus (Prestakuntza, Kodea)
www.fpzornotza.com (Enplegurako prestakuntza ikastaroak)

OHARRA: Taldeak sortu ahala, hasiko dira ikastaroak

Urritxe auzunea, z/g · Tfno: 688 665 300 · 946 730 251
48340 AMOREBIETA-ETXANO (Bizkaiak)
e-mail: maranburu@fpzornotza.com · www.fpzornotza.com



Joan den astetik hona, astelehen, eguazten eta barikuetan mobilizatzen dabilta Tantortako auzotarrak.

Tantorta urbanizatzeko lanak hasi arte protestei eutsiko diete auzotarrek

URA agentziaren eskariz, Eroskik moldaketak egin behar izan ditu urbanizazio proiektuan, eta horrek lanen atzerapena eragin du. Eroskiren proiektu berritua "epe motzean" jasotzea itxaroten du udalak; hile honen amaieran ez bada, hurrengoan

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Tantorta auzoko bizilagunek protestak hasi dituzte, auzoko urbanizazioa hobetzeko lanak lehenbailehen martxan ipini daitezzen eskatzeko. "Auzoa abandonatuta dagoela ikusten dugu. Etengabe dioskue lanak etorriko direla, hasiko direla, baina guk atzerapena eta utzikeria baino ez ditugu ikusten", azaldu du Jon Etxebarria Tantorta auzoko bizilagunak. Joan den astean, auzotarrek protestak hasi zituzten. Lidl supermerkatuaren aurreko biribilgunera irteten hasi dira astelehen, eguazten eta bari-

kuetan. "Hementxe egongo gara, egoera hobetu arte", diote.

Eroski supermerkatu etxeak dauka Tantortako urbanizazioa hobetzeko lanen ardura. Lanak urte honetako bigarren seihilekoan hastea aurreikusita zegoen, baina atzerapenagaz datoz. Hain zuzen ere, auzoko erreka bat delata, URA agentziak proiektuan moldaketa batzuk egitera behartu du Eroski, eta horrek eragin du lanen atzerapena. Orain, Eroskik proiektu berritua aurkeztu behar du udalean. Andoni Agirrebeitia Zornotzako alkateak aurreikusit-

du "epe motzean" jasoko dutela udalean urbanizazio proiektu berritua; hile honen amaieran ez bada, hurrengoan.

Beharrezko hobekuntzak

Auzotarrek diote oso hondatuta daudela inguruak. "Umeek auto artean jolastu behar izaten dute. Arriskua dago", dio Joselu Etxebarria auzotarrak. "Jesarleku bi baino ez ditugu jesartzeko", kexatu da Etxebarria. Urbanizazio berriak jolasgune bat ipintzea, espaloiak handitzea eta bide segurtasuna hobetzea du aurreikusita.

Datorren urtean, prezio publikoak %1 igoko dira Zornotzan

Igoerak kirol eta kultura zerbitzuei eragingo die gehienbat. Ezkontza eta hileta zibilak 60 euro ordaindu beharko dira datorren urtetik aurrera

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Prezio publikoak eguneratu eta %1 igotzea onartu du Zornotzako Udalak. Igoerak, nagusiki, kirol eta kultura zerbitzuetan izango du isla, eta udalak eskaintzen dituen beste zerbitzu batzuei ere eragingo die. Eguneratzeak beritasun bat dakar: ezkontza eta hileta zibilak egiteagatik 60 euro ordaindu beharko dira 2020tik aurrera. PSE-EEk proposatu du neurria, eta gobernu taldeak babestu du. Oposizioak begi onez ikusi du prezio publikoak eguneratzea, baina ez da ados agertu tasari dagokion puntuan. EH Bilduren eta Hiri Ekimenaren esanetan, ezkontzetan lan egiten duten

zinegotzien jarduna boluntarioa da eta zerbitzuari berari ez diote kostu gehigarri ikusten. Andoni Agirrebeitia alkateak argitu du prezioa "merkeenarikoa dela inguruko herrien aldean".

Katalunia eta pentsioak

EAJk, EH Bilduk eta Hiri Ekimenak Kataluniako epaian zigortutakoak askatzeko eskatu dute, eta adierazi dute epaia "bidegabea" dela. Pentsiodunen aldarrikapean ere babestu dituzte, baina desadostasunak izan dituzte 1.200 euroko soldata minimoari dagokionez. Lorpenak errealitatera doituak izan behar direla defendatu dute jeltzaleek.



Besteak beste, pentsiodunen aldarrikapean eztabaidatu zituzten eguaztenean.

Enpresen eta eskualdeko ikasleen arteko topaleku izaten ari da Zornotza

'I'm Bizi' programaren aurtengo edizioa gaur amaituko da



Motibazioari eta gainditzeari buruzko berbaldiak egiten dabilta, besteak beste.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Durangalde osotik ailegatatutako 500 bat ikasle Zornotzan baten ari dira egunotan, *I'm Bizi* egitasmoaren barruan. Ikasleen etorkizunean eta garapen profesionalen laguntzeko bokazioa duen programa da *I'm Bizi*, eta bertan bat egiten dute enpresek, Durangaldeko ikasleek eta Lanbide Heziketari lotutako ikastetxeek. Ikasle eta profesionalak elkar ezagutzeko aukera izaten ari dira, prestakuntza eta lan aukeren berri izan dezaten aurrerantzean. Hiru egunean garatzen ari den egitarauan, berbaldiak, ideia lehiaketak, mahai-inguruak, *workshop*ak, eta bestelako lantegiak eskaintzen ari dira. Halaber, aztergai izaten ari dira zeintzuk diren negozio eredu berrien erronkak.

Topaketak eguaztenean hasi ziren eta gaur amaituko dira, 13:00 aldera, sari banaketa batez. Gaztedi Durangaldea programak antolatzen du *I'm Bizi*, eskualdeko 12 udalerriren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren babesagaz.

Euskarazko youtuber izaten laguntzeko ikastaroa egingo dute asteburuan Zornotzan

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Durangotik eta Bizkaiko beste hainbat herritatik pasatu eta gero, asteburu honetan Zornotzak hartuko ditu Youtubeskolak, euskarazko *youtuberrak* sustatzeko eskolak. Funtsean, bideoak grabatu, editatu eta ekoizteko ikastaroak dira, eta gazteen artean euskarazko bideo sorkuntza sustatzea dute helburu. Zapatuan eta domekan eskainiko dituzte ikastaroak, Zelaieta zentroan, 9:00etatik 18:30era bitartean. 13tik 16 urtera bitarteko gazteei zuzendutako egitasmoa da. Gainera, bideo lehiaketa batean parte hartzeko deialdia ere egin dute. Azkue fundazioak eta Bizkaiko Foru Aldundiak antolatu dituzte Youtubeskolak.

Zornotzako dendetan erabiltzeko diren 2.000 erosketa bonu kaleratuko dituzte

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Erosketak Zornotzan egiteak pizgarri bat izango du azaroaren 4tik abenduaren 5era. 40 euroko bonu bat erosita, 50 euroko balioa duen erosketa egin ahalko dute herritarrek. Udalak eta Dendariak elkarteak 2.000 bonu kaleratuko dituzte herriko dendetako kontsumoak gora egin dezan. Bonua eskuratzeko, Dendariak elkartearen bulego-jo eta txartela erosi beharko da. Herritar bakoitzeko, bonu bi erosi ahalko dira gehienez. Hauek dira bulegoaren ordutegiak: 10:00etatik 14:00etara astelehen, martitzen, eguazten eta barikuetan, eta 16:00etatik 20:00etara eguazten. Egitasmoak *Amorebono* du izena, eta egiten den lehenengo aldia da.

Osasun gida

anboto

 **Ginekologia**
PSE: 93/18

mam ginekologia zentroa

Mikeldi 13, 48200 - DURANGO
T 946 05 53 04
info@mamginekologiadurango.com
www.mamginekologiadurango.com

HITZORDUA ESKATU
674 322 360

 **Fisioterapia**
PSE: 119/13

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

 **Fisioterapia**
PSE: 57/16



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

 **Fisioterapia**
PSE: 155/17



HOBETU
Fisioterapia & Podología

info@hobetu.es
T/ 946 582 444

K/ Buzkantz kalea, 2
P.K./ 48230 Elorrio
www.hobetu.es

 **Podologia**
PSE: 148/13

PAUSOZ PAUSO
Podologia klinika

Goiatz Murua
kol. zbk. 147
Ainhoa Elorza
kol. zbk. 238
Nerea Rodriguez
kol. zbk. 329

Kiropodia, onikopatia, alterazio dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Telefona: 946203630
Monago Torre 4, behea 48200 durango

 **Odontologia**
PSE: 145/13



clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

{Muruetatorre, 2C blokea, behea}
DURANGO
Tel.: 946 819 951
Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

 **Odontologia**
PSE: 112/13



J.L. URRETA ZABALO
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO
Tel.: 946 812 200

 **Estetika**
PSE: 16/09

 **AGIRRE KLINIKA**
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaestheticadurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa, Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak... Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 - DURANGO
Tel.: 946 810 387

 **Psikologia**
PSE: 62/11



JON ARRUBARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psicologo.biz
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

 **Optometria**
PSE: 162/13

 **keinu** optometria zentroa

Naia Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

- Optometrian teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.
- Orto-k.

Arkaraz 3
48240 Berriz
tel: 946225099


www.keinuoptometriazentroa.com

 **Pedagogia**
PSE: 63/63

 **UGATZ**

UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA
Laguntza goiztiarra, psikomotrizitatea, fisioterapia, logopedia

Juan Olazarán, 1 behea
DURANGO
ugatz@hotmail.es
944 668 370 - 615 782 090



Profesionalik onenak zure zerbitzura!

ELORRIO Herri mugimenduak inizatiba, Berdintasun Sailak bultzada

BILGUNE FEMINISTA

SARE SENDO BAT HELBURU

- **Sorrera urtea:** 2016. Txoko Feministan aritutako kide batzuen eskutik sortua.
- **Helburu nagusiak:** Herrian feminismotik eragitea. Uneotan, saretze feminista bat sortzera bideratu dituzte indarrak. Herriko emakumeen arteko sare indartsua sortu gura dute.
- **Ekintzak:** Martxoaren 8ko, Azaroaren 25eko eta Ekainaren 28ko ekitaldiak. Gazteenentzat, autodefentsa tailerak.
- **Bilera maiztasuna:** hamabostean behin.
- **Kontaktua:** elorrizokobilgunefeminista@gmail.com

ASANBLADA FEMINISTA

IPARRA ARGI DUEN TALDE BERRIA

- **Sorrera urtea:** 2019. Martxoaren 8ko asanbladatik sortua.
- **Helburu nagusiak:** Herriko emakumeen sarea sortzea. Elkarlanerako espazioak sortzea. Eraso matxisten aurrean, erantzuteko ekintzak antolatzea. Durangon egitekoak diren Euskal Herriko Jardunaldi Feministetan eragitea.
- **Ekintzak:** Martxoaren 8ko ekitaldiak. Herriko eraso matxistak salatzea. Ferixa Nagusikoetako txupinazoa jaurti dute aurtan. Ateneon biltzen dira.
- **Partaide kopurua:** 20 inguru.
- **Kontaktua:** elorrizokoasanbladafeminista@gmail.com

ELORRI-LORE elkarte

AHALDUNTZEA ETA GARAPEN PERTSONALA

- **Sorrera urtea:** 2005
- **Helburu nagusiak:** ahalduntzea eta parekidetasuna lantzea. 60 urtetik gorako emakumez osatutako taldea da. Gazteak erakartzea dute erronka.
- **Ekintzak:** Garapen pertsonalari buruzko ikastaroak eguenean. Sexologia eta ahalduntze
- lantzen dituzte bertan, besteak beste. Martxoaren 8ko eta Azaroaren 25eko ekintzak egitea. Bazkariak, txangoak eta film proiektzioak.
- **Partaide kopurua:** 50 kide gutxira. 20 kide modu aktiboan.
- **Kontaktua:** elorri.lore@gmail.com

LILIKA elkarte

UDALEKO BERDINTASUN SAILAGAZ BATERA

- **Sorrera urtea:** 2001. Elorriko Udalak lehenengo Berdintasun plana onartu zuenean sortu zen taldea.
- **Helburu nagusiak:** Udaleko Berdintasun Sailak hartzen dituen erabakiei behaketa egitea. Hausnarketarako gune bat izatea. Udaleko teknikariagaz batu eta informazioa partekatzen dute. Bertan batzen diren kideek herriko beste elkarte batzuetan ere parte hartzen dute.
- **Partaide kopurua:** 5 inguru.
- **Bilera maiztasuna:** hamabostean behin, gutxi gorabehera.
- **Kontaktua:** lilikaemakumetaldea@gmail.com

ALARGUNAK

ALIANZAK SORTZEKO TOPALEKUA

- **Sorrera urtea:** 1991
- **Helburu nagusiak:** Emakume alargunen egoera plazaratzea eta egoera horretan dauden herritarren artean aliantzak eta babesguneak sortzea. Babes emozionalerako eta ekonomikorako sareak sortzea. Elkarte-ko partaide guztiek 65 urtetik gora dute.
- **Ekintzak:** Askotariko gaiak lantzen dituzten hitzaldiak eta txango kulturalak. Udaleko Berdintasun Sailagaz batera koordinatzen dira.
- **Partaide kopurua:** 85 inguru.
- **Kontaktua:** berdintasuna@elorrrio.eus (Udaleko Berdintasun Saila)

Aisialdirako emakume taldeak bai, aldarrikapen feministak ere bai

Zaldibarko emakume betetanorik gehienak aisialdiari lotutako ekintzetan kokatzen diren bitartean, belaunaldirik gazteenak diskurtso aldarrikatzaileagoak ditu. Elorriko kasuan, nabaria da udaleko Berdintasun Sailak hainbat elkarteri ematen dien beharrezko babes

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Durangaldeko beste zenbait herritan gertatzen den fenomeno bera errepikatzen da Zaldibarren eta Elorri. Adinez nagusiagoak diren emakumeek aisialdiari lotutako espazioak sortu dituzte, eta ez dute baztertzen data seinalatuetan kalera irten eta aldarrikapenak egitea. Egoera hori irauli egiten

da, baina, adinez gazteagoak diren emakumeengan. Gazteenek ez dute euren burua aisialdiagaz bakarrik identifikatuta ikusten, eta aldarrikapen feministadun kolektiboak sortzeko joera ageri dute. Hala, Zornotzako, Durango eta Berrizko joera bera errepikatzen da baita Zaldibarren eta Elorri ere. Azken herri honen

kasuan, baina, bada berezitasun bat. Udaleko Berdintasun Sailaren ekimenez, garai batean sortutako elkarteak bizirik daude, eta ahulduta dauden beste batzuei ere laguntzen die.

Honakoa Durangaldeko mugimendu feminista aztertzen duen sailaren hirugarren atala da, eta segida izango du hurrengo alean.



Egunak tartekatuta eta astero batzen dira Dominika Talde Feministako kideak.

ZALDIBAR Adin tarte bi eta emakumeen topaketetarako leku bi

HELMUGA

ENTRETENIMENDURAKO EKINTZAK, EMAKUMEEN BILGUNE

- **Sorrera urtea:** 2005.
- **Helburu nagusiak:** Emakumeen topaleku bat sortzea nagusiki, aisialdirako ekintzak oinarri hartuta.
- **Ekintzak:** Ehoziri-lanei buruzko ikastaroak eta pintura tailerrak. Sukaldaritza eta dastaketa ikastaroak. Data seinalatuetan, emakumeen egoera aldarrikatzea.
- **Partaide kopurua:** 80 inguru, modu aktiboan.
- **Bilera maiztasuna:** astero batzen dira ikastaroetan.
- **Izaera:** kide beteranoz osatutako taldea nagusiki. Kide berriak sartu diren arren, gazte gehiagobatzea gura dute.

DOMINIKA TALDE FEMINISTA

FEMINISMOAREN ERTZ GUZTIAK KALERATZEN DITUEN TALDEA

- **Sorrera urtea:** 2018.
- **Helburu nagusiak:** Boterea hartzea. Autodefentsa feminista oinarri hartuta, herriko eragile eta mugimendu sozialekin batera eragitea. Emakumeen sare bat sortzea.
- **Ekintzak:** Eraso matxisten aurkako protokoloa lantzen dabilta. Taldearen izena hartzen duen Dominika emakumeari buruzko ikerketa egiten dabilta. Mar-
- txoaren 8ko grebak, ahalduntze eta formakuntza saioak.
- **Partaide kopurua:** 10 inguru
- **Bilera maiztasuna:** astero
- **Kontaktua:** dominikazaldibar@gmail.com



ERAZ

Hareek denporak!

DURANGOKO DANTZARIAK ORAIN 120 URTE

Orain 20 urte, Kriskitin dantza taldeak *Platillu Soinua* izeneko dantza berreskuratu zuen Durangon. Ehun urte lehenago, *Dantzari-Dantza, gorulari eta domingillo* dantzekin batera dantzatzen zuten argazkian agertzen diren dantzari durangarrek. Lehenengo hirurak dantza ezagunak ziren, baina *Platillu Soinua* orain 120 galdu zen.

1801ean Guillermo Von Humboldt Durangon izan zen eta dantza hau deskribatu zuen. Partiturak ere jaso zituen. Durangoko Udal Artxiboan erreminten faktura agertzen da. 1886an Euskal Jaiak egin ziren Durangon. Ramon Iñurrietak aurkeztutako faktura bat gordeta dago. "Grabatutako eta nikelatutako zortzi txapa" dago idatzita fakturan. J.G.

Durangaldea asteen

Durango gizonezko bat atxilotu dute bikotekidea erasotzea leporatuta

Durango | Zapatuan, urriak 19, Ertzaintzak gizonezko bat atxilotu zuen Durangon, bikotekidea erasotzea leporatuta. Ertzaintzak ANBOTOr jakitera eman dionez, atxiloketa 18:45ean gertatu zen. Bestalde, domekan epailearen aurretik pasatu zela azaldu zuten.

Astebetean Durangon gertatu den bigarren eraso izan da zapatukoa. Urriaren 12an beste eraso sexista bat egon zela salatu zuen Durangoko Txosna Batzordeak.

Astelehen arratsaldean zuhaitz bat jausi zen Durangoko San Roke bidean

Durango | Astelehen arratsaldean, San Roke bidearen eta Jose Maria Iparragirre kalearen arteko bidegurutzearen ondoan zegoen zuhaitza jausi zen Durangon. Zuhaitzaren enborra espaloian zegoen, baina adarrak bideraino heltzen ziren. Ertzainak eta udaltzainak bertaratu, eta zuhaitza oinarritik moztu eta erretiratu zuten.

Zornotzako Anboto kalea urbanizatzeko lanak otsailerako egongo dira amaituta

Zornotza | Astelehenean hasi zituzten Zornotzako Anboto kalea urbanizatzeko lanak. Lanek 226.550 euroko aurrekontua dutela eta otsailerako egongo direla amaituta jakitera eman du Zornotzako Udalak. Anboto kalea urbanizatzear gainera, bertako plaza eraberritu egingo dute, gune modernoagoa izan dadin. Horretatik aparte, gune berdeei lehentasuna emango dietela adierazi dute udaleko kideek.



Euromilioiak 1.000.000 euro utzi ditu Durangon, Ermodo kalean dagoen Ikerfer dendan

Durango | Durango jaietako bigarren asteburuan murgilduta zegoen bitartean, zapatu goizean berri on bategaz esnatu ziren Ikerfer liburu-dendako jabeak. Izan ere, euromilioia lehiaketak 1.000.000 euroko

saria utzi zuen bertan. Zapatukoa ez da Ermodo kaleko liburu-dendak saria ematen duen lehenengo aldia. Aurrez ere hainbat sari eman dituzte. "Pozez zorutzen gaude. Inoiz eman dugu sariren bat edo beste, txi-

kiak beti, baina ez horrelako sari potolorik", adierazi zioten dendako jabeek ANBOTOr. Durangoko jaiak azken txanpan zeuden, eta San Faustoei amaiera emateko modurik ezin hobea zela ere esan zuten.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefona • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOr irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarreak barne).

DURANGALDEAN ESTETIKAGAZ

ZERIKUSIA DUEN NEGOZIORIK BADUZU,

IPINI EZAZU ZURE IRAGARKIA ANBOTON

Informazio gehiago **94 621 79 02** telefono zenbakian





Nogen eta Kaotiko

KONTZERTUA

MALLABIA : Urriak 26

Nogen musika taldeak Mallabian joko du, Urriko Jaien barruan. 2016an sortutako talde donostiarrak folk, rock eta pop doinuak dituzten disko bi kale-ratu ditu, eta, bihar, zuzenean entzuteko aukera izango dute euren jarraitzaileek.

Nogen taldea ez ezik, 1990eko hamarkadan Agurainen sortutako Kaotiko taldeak ere emango du kontzertua, bihar, parkean. Musikan ibilbide luzea duen euskal rock musika taldearen jarraitzaileek aukera ezin hobea izango dute hori. Kaotikok bederatzi dis-



Anne Etchegoyen eta Les Nouvelles Voix Basques ahots banda

MUSIKA | Donapaleuko (Nafarroa Beherea) abeslaria *Euskal Emazte* proiektu berriagaz etorriko da Berrizera. Urriaren 26an, zapatuan, eskainiko

du zuzenekoa, kultur etxean, 20:00etan, eta beragaz batera izango du Les Nouvelles Voix Basques ahots banda. Euskal gizartean emakumeak

hartzten duen eta beti hartu izan duen leku nabarmena aldarrikatzen du Anne Etchegoyenek proiektu berri honetan. Bertan, berak sortutako abestiak ez ezik, orain arte gizonezkoek abesturiko euskal kanta tradizionalak ere interpretatzen ditu, aldaketa berriekin: *Boga boga*, *Mendian gora haritza* edo berriagoa den *Askatasunera*.

Urriaren 25ean

DURANGO merkatua
Mendiko materialaren merkatu txikia, 17:00etatik 21:00etara, Alpino Tabira mendizale elkarteak Goienkalen duen egoitzan.

ELORRIO antzerkia
'Contra la democracia' (Teatro del noctámbulo), 20:30ean, Arriolan.

ELORRIO ipuinak
Itziar Gamero ipuin kontalaria, 17:00etan, liburutegian (3-5 urteko umeentzat). Sei urtetik gorako umeentzako saioa, 17:30ean.

IURRETA ipuin kontalaria
Leire Bilbao ipuin kontalaria, 17:30ean, bibliotekan (3-4 urtekoak, heldu batek lagunduta). Bost urtetik gorakoentzat, 18:00etan.
Helduentzako saioa:
'Poesiaz blai', 19:30ean

MALLABIA urriko jaiak
Merendola eta tailerrak umeentzat, 16:30ean, eskolan. Bertako frontoian, **buruhandiak**, 17:00etan. (Guraso Elkarteak).
Txupinazoa, 18:30ean, udaletxeko balkoitik.
Elizpeko pilota txapelketako finala, 19:00etan.
Errebal dantzaldi gidatua, 19:00etan, parkean (Gazte Alai).
Oilasko pintxoak, 20:30ean.
INGOT eta EZ3 taldea, 21:00etan, parkean (Nahikari elkarteak).
Mugi panderoa, 23:00etan, parkean.
Dj Ander, 01:00etan.

ZORNOTZA dantzan
'Erritu' (Kukai & Sharon Fridman), 20:15ean, Zornotza Aretoan.

Urriaren 26an

BERRIZ ipuin txokoa
'Amalurra eta birziklatzeko makina', 12:15ean, Kultur Etxean.



ko ditu kalean. Kontzertua 22:30ean hasiko da.

Zuzeneko bi horien ondoren, Txurru Djaren emanaldia hasiko da. Aurreko egunean, urriaren 25ean, Ingot eta EZ3 taldeek eskainiko dute kontzertua, 21:00etan.

Zapatuan, III. Lutaber Fest jaialdia ospatuko dute Zornotzan

MUSIKA | Euskal Herriko sei musika talderen eskutik, Zornotzako kale eta txokoak musikaz bustiko dira, zapatuan, urriaren 26an, Lutaber Fest jaialdiaren barruan. Jaialdi honek hirugarren aldian du aurtengoa, eta Luis Urrengoetxea kaleko tabernariak antolatu dute.

Eztandap, The Dirty Road Band, Etxekalte, Belatz, Illenti eta Voltium musika taldeek eskainiko dituzte kontzertuak, bihar. Antolatzaileek hiru gune lotu dituzte Lutaberfeste jaialdirako. Musika talde hauek Kallejon, Guria aurrean eta Vintage-n joko dute, 18:30ean hasita.



ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi kultura@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

BERRIZ erakustaldia
'Pilota jokoa: Zelaietatik Pilotalekura', 17:00etan, Berrizburu frontoian. Erakusketa, erakustaldia eta pilota partidua antolatu dituzte Europako Ondarearen Jardunaldien barruan.

DURANGO jaiak
Gau Kros Txikia (umeentzat), 19:00etan, Santa Anan.
Nesken saskibalo partidua: Tabirako Baqué-Campus Promete, 19:00etan, Landako kiroldegian.
Gau Krosa, 20:00etan, Santa Anan (durangaldearunnig.com).
XXIV. Txistu Kontzertua, 20:00etan, Landako Gunean. Silboberri.

DURANGO merkatu txikia
Mendiko materialaren merkatu txikia, Alpino Tabira mendizale elkarteak Goienkalen duen egoitzan: 11:00-14:00/17:00-20:00.

ELORRIO lehiaketa
Iturritzorero Elkartearen XXX. 'Errebonbillo' Margo Lehiaketa. Izen-ematea, 09:00etatik 10:00etara, Iturri kultur etxean. Lanak 14:30ean entregatuko dira.

MALLABIA urriko jaiak
Nesken frontenis txapelketa, 09:00etan, frontoian (Mallabia F.T.).
Mallabiko IV. Arda Ferixie, 12:00etatik 15:00etara, probalekuan. Sarrera: 7 euro. Mallabiko tabernariak egindako pintxoak salduko dira (udala eta Ardosaltsan).
Herri bazkari autogestionatua, 15:00etan, elizpean.
Birziklatze jolasak umeentzat, 17:00etan, parkeko aterpe berrian.
Dunbots txarangagaz kale animazioa, 18:00etan.
Rock kontzertua: Nogen + Kaotiko, 22:30ean Ondoren, DJ Txurru, plazan.

Urriaren 27an

DURANGO jaiak
53. Umeen Euskal Jaia, Txoritxu Alai eta Tronperri dantza taldeek antolatuta: **kalejira**, 12:00etan, Merkatu plazatik irtenda.
Alardea, 17:00etan, Ezkurdin (euriagaz Landakon).
VII. Argazki Txapelketako sari banaketa, 13:00etan, San Agustin kulturguneko sarreran (Asociación Fotográfica F-Stop).

DURANGO dantza
Dantzadantza, 18:30etik 20:30era, Landako kiroldegian. Udaleko Adinekoen Sailak erata.

IURRETA hitzaldia
'Gorulariak; lihoaren dantza', 12:00etan, Ibarretxe kultur etxean. Hizlaria: Jose Antonio Azpiazu. Europako Ondarearen Jardunaldiak.

Abenduko agenda



25 **"HERRI BIBLIOTEKA"**
Maiztegi Herri eskolako ikasleentzat
09:00 "Xomorroak eta piztiak" Leire Bilbao eta Maite Mutuberría
17:00 Haurrentzako ipuin kontalaria / **Leire Bilbao poesiaz blai**
17:30 3 - 4 urtekoak, heldu batek lagunduta
18:00 5 urtetik gorakoak - Gonbidapenagaz / Helduentzat
19:30 Leire Bilbao poesiaz blai - Gonbidapenagaz

26 **"EUROPAKO ONDAREAREN JARDUNALDIAK"**
12:00 Hitzaldia: Jose Antonio Azpiazu
"Gorulariak, lihoaren dantza"
Ibarretxe Kultur Etxean
Informazioa: 673 00 59 81 / ejardunaldiak@gmail.com

29 **"HERRI BIBLIOTEKA"**
18:30 Reading club "Carrie" / Stephen King

30 **"HERRI BIBLIOTEKA"**
10:00 XL Kluba. Odol-ematea.
16:30 - 21:00 Odol-ematea



MALLABIA urriko jaiak
Umeen futbito partidua, 11:00etan, eskolako frontoian (Mallabia F.T.).
'Futbolariak eta printzesak' antzerkia, 16:30ean, Kontzejuzarrean. Gero, txokolatada.
Mus txapelketa, 17:00etan, probalekuan.

Azaroaren 1ean

DURANGO jardunaldiak
Euskal Herriko V. Jardunaldi feministak, azaroaren 3ra bitartean. Izena emateko: www.saldabadagojardunaldiak.eus webgunean.

MALLABIA urriko jaiak
Nesken gomazko paleta zirkuitua, 12:30ean, frontoian.

Azaroaren 3ra arte

DURANGO erakusketa
Ane Barrainkuaren lanak, Ezkurdin erakustaretoan.

Zinea

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **Mientras dure la guerra**
barikua 25: 22:00
domeka 27: 19:00

:: Durango - ZUGAZA

• **El silencio de la ciudad blanca**
barikua 25: 19:30/22:00
zapatua 26: 19:30/22:30
domeka 27: 19:15/21:30
astelehena 28: 18:30/21:00
martitzena 29: 20:00
eguaztena 30: 20:00

• Día de lluvia en Nueva York

barikua 25: 19:30/22:00
zapatua 26: 20:30/22:30
domeka 27: 19:15/22:30
astelehena 28: 18:30/21:00
martitzena 29: 20:00
eguaztena 30: 20:00

• Secretos de estado

barikua 25: 19:30/22:00
zapatua 26: 20:30/22:30
domeka 27: 19:15/21:30
astelehena 28: 18:30/21:00
martitzena 29: 20:00
eguaztena 30: 20:00

• Abominable

zapatua 26: 16:30/17:30/18:30
domeka 27: 16:30/17:30

• Maleficent

zapatua 26: 17:00
domeka 27: 16:30

:: Elorrio - ARRIOLA

• **Una íntima convicción**
zapatua 26: 22:00
domeka 27: 20:00
astelehena 28: 20:00

• Terra Willy. Planeta ezezaguna

domeka 27: 17:00

:: Zornotza - ARETOA

• **El silencio de la ciudad blanca**
zapatua 26: 19:30 / 22:00
domeka 27: 20:00
astelehena 28: 20:15

• Abominable

zapatua 26: 17:00
domeka 27: 17:00

“D bat gehitu diogu izenari, 'Nerd' hitzagaz jokatzeko; guztiok ere friki ukitu interesgarria dugula uste dugu”

Moonshinerds talde durangarrak lau abestiko lan laburra kaleratu du; rocka nagusitzen da bertan, bestelako zertzeladak ere badituen arren



Moonshinerds.

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Joseba Irigorasek eta Liher Granadosak hamarkada bat baino gehiago daramate elkarregaz musika egiten. Kontzertu batean ikusi eta gero, Jon Sanchez batu zitzairen proiektura, orain bost urte inguru, eta, azkenaldian, Asier Elias ere batu zaie. Azken urte bietan, formazio bera mantendu du taldeak: Joseba Irigoras (gitarra eta ahotsak), Liher Granados (baxua), Jon Sanchez (gitarra) eta Asier Elias (bateria). Izen bereko lau abestiko disko laburra kaleratu dute oraintsu, eta gogo itzela dute zuzenean aurkezteko.

Urte luzez zabilzate elkarregaz. Nolatan sortu zen taldea?

Joseba Irigoras: Abesti batzuk idatzita nituen, rock & rollera enfokatuagoak. Kanterogaz hasi nintzen, eta lauzpabost entseguren ondoren, Liher batu zen. Hamar bat urte egin genituen Mooshiners izenagaz.

Liher Granados: Hasieran, entseatu baino ez genuen egiten. Gero sortu genuen Moonshiners.

J.I.: Izenak ematen dion hegoaldeko ukitu hori zelan geratzen zen gustatu zitzaigun. Izen bat eskatu ziguten 'Greatest Hits' gauetako batean jotzeko, eta hori bidali genuen; AC/DCren bertsioak egin genituen, Shinovako Gabigaz.

L.G.: Hurrengo 'Greatest Hits' gauean, Jon ikusi genuen, Steve

“**Martin L. Guevara oso ondo portatu da gugaz, hasieratik; produktore lanak ere egin ditu**”

Rayren bertsioak jotzen. Lagun berak genituen, eta taldean sartzera gonbidatu genuen.

Jon Sanchez: Gitarrista ona barik, karismatikoa naiz (barrez). Ordu tik, bost urte-edo igaro dira.

Gerora, Elias batu zitzaizuen.

L. G.: Kanterok utzi egin zuen proiektua, Alertagaz jarraitzeko, eta Asier Elias animatu zen gugaz jotzera, taldea gustuko zuelako. Urte bi daramatza jada. Gero, asko entseatu ondoren, abesti hauek grabatzera animatu ginen, eta, estudioan geundela, Martin L. Guevarak [Capsula] izena aldatzeko gomendatu zigun, Moonshiners lez erreferentzia asko zeudelakoan. 'D'-a gehitzea pentsatu genuen, *nerds* berbagaz jolasteko. Guztiok ere friki ukitu interes hori dugula uste genuen, eta horrela gelditu da.

Urte hauetan guztietan, abesti asko sortuko zenituzten. Zelan egin duzue diskorako aukeraketa?

J.I.: Abesti asko egin ditugu, eta horietariko asko entseguetan ere ez ditugu jotzen. Gehien ordezkatzen gaituztenak aukeratu gura izan ditugu. Soft rock lez definitu daitekeen abesti bat dago, beste bat doinu rockeroagoa duena, eta nahiko kañeroa den beste bat. Hizkuntzagaz ere berdin egin dugu: abestietariko bi euskaraz dira, eta beste biak ingelesez. *I Loser*, adibidez, zuzenekoak hasteko oso ona

“**Egiten duguna metal zale bati zein rock zale klasiko bati gustatu dakiekeela uste dugu**”

dela iruditzen zaigu, riff astuna eta bizkorra du, moteroa da.

L.G.: Grabatu ere elkarregaz egin dugu, denok batera. Askoz ere azkarrago jotzen dela iruditzen zaigu, eta elkarregaz jotzean sortzen den feeling hori ere lortu gura genuen. Mocker's-ekoak lagunak ditugu, eta bagenekien eurek ere horrela egin zutela. Haiek han grabatu izanak ere ateak zabaldu zizkigun.

Eta zelan joan zen grabazioa?

J.I.: Oso pozik gaude emaitzagaz. Hiru egunean grabaturiko make-tatxo bat da, eta lan bikaina egin duela uste dugu.

J.S.: Gugaz oso ondo portatu zen, hasieratik. Produktore lanak ere egin ditu, abestiak moztzen eta proposamenak egiten. Diskoan agertzen den kolaborazioa bere ideia izan zen, adibidez.

Rocka zentzu zabalean ulertzen duzue. Zelan azalduko zenukete zer den egiten duzuen?

J.S.: Liherrek eta biok jazzetik eta bluesetik edaten dugu gehiago. Joseba, ostera, metaletik edo stonerretik dator gehiago. Erdibidea edo elkargunea egiten dugun rock honetan dagoela uste dugu. Azken finean, jotzerakoan ez duzu buruan hau egin, edo bestea egin, natural irteten zaigun horretan igartzen dira influentziak. Gure ustetan, leku guztietatik hartzea da onena.

L.G.: Egiten duguna metal zale zein rock zale klasiko bati gustatu dakiekeela uste dugu. Zuzenekoetan bertsioak jotzen ditugu, eta hor ere igartzen dira erreferentziak. The Police eta AC/DC taldeen bertsioak jotzen ditugu, besteak beste.


Zein izango da hurrengo pausoa?

L.G.: Diskoa plataforma digitaletan kaleratu dugu, eta KDak heltzeko zain gaude orain. Horrez gainera, ahalik eta zuzeneko gehien eskaintzea dugu helburu. Dena delakoagatik, oso gutxi jo dugu zuzenean. Orain erreferentzia bat dugu erakusteko, eta horregaz leku gehiagotan jotzeko aukera edukitzea itxaroten dugu. Aurrera begira, ondo legoke EP honen bigarren zati bat grabatzea, edota lan luzeago bat.

Zeri buruzkoak dira letrak?

J.I.: Gizartearen alde ezkorra ateratzen dugula uste dut. Dekadentzia edo ezkortasun bat ageri da. *I Loser*, adibidez, galtzaileei buruzkoa da, baina hausnarketara ere bultzatzen du, ea nork erabakitzen duen nor den galtzailea. *Pentsatzen* egun txar bat duen tipo bati buruzkoa da, eta *American Hero* ere horrela ulertu daiteke.

**Durangaldeko azken
albisteak jaso gura
dituzu?**



**Batu
Anbotoko
whatsapp
taldera**

Bidali ALTA

688 635 041

telefono zenbakira



Izan zaitetz berriemaile ere.

Bidali zure argazki eta bideoak

Xabier Amurizak irabazi du 2019ko Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona saria

KULTURA • A.M.

Eusko Ikaskuntzako epaimahaia-aren arabera, Xabier Amuriza (Amorebieta-Etxano, 1941) "bertsolaritza modernoaren erreferente argia da, eta alor askotan aurrendaria izan da". Orokorrean, Amurizak bertsoari eta euskal kulturari egindako ekarpena "ikaragarria" izan da. "Bertsolaritzatik harago, lan ibilbide emankorra izan du literatura eta musika alorretan, izan ere ugariak izan dira berak egindako eleberriak, azterlanak, diskoak eta grabaketak", azaldu zuen epai-

mahaia ohar baten bitartez. "Saria balio unibertsalekoa da, lanaren dibulgazioa kontuan hartzen duena".

Bertsolaritzatik harago, musikan eta literaturan egindako ekarpena aitortu gura izan diote

Manuel Lekuona saria Eusko Ikaskuntzak sortu zuen, 1983an, euskal komunitatean ekarpen ga-

rrantzitsua egin duten pertsoneri aitortza egiteko. Besteak beste, Jorge Oteizak, Montxo Armendarizek eta Joan Mari Torrealdaiak irabazi dute.

Lekuonagaz lotura

Eusko Ikaskuntzaren arabera, sariaren izena daramanak eta sari-dunak lotura dute. "Hizkuntzalarietan eta olerkigintzan ibiliak dira biak. Bata Remigio Mendiburuk sortutako brontzezko golardea eskuratu dutenen zerrendaren hasieran dago (Manuel Lekuona), eta amaieran bestea (Xabier Amuriza)".



Xabier Amuriza.

'Kartzela eta erbestea' ikusteko azken aukerak

Urriaren 26an izango dira azkenengo bisita gidatu biak; euskarazko bisita izango da lehenengoa, 12:30ean

ARTEA • A.M.

Aurreko bisita gidatuek edukitako arrakastaren ondorioz, Durango Arte eta Historia museoak hiru aukera gehiago eskainiko ditu Jose Manauten erakusketa ikusteko, berau erretiratu aurretik. Lehenengoa urriaren 23an izan

zen. Urriaren 26an euskarazko eta gaztelaniazko bisita gidatu bana egongo da; euskarazkoa 12:30ean izango da, eta 13:00etan izango da gaztelaniazkoa. Aurretik izena eman behar da.



Garazi Arrizabalaga zuzendaria, bisita gidatu batean.

Silboberrik txistu kontzertu berezia antolatu du zaturako, 24. urtez

Jabier Ituartek egingo ditu zuzendari lanak; 20:00etan hasiko da kontzertua, Landakon



Txistu kontzertua jaien ondoren izaten da.

MUSIKA • A.M.

Bederatzi pieza joko dituzte gutzira emanaldian. Horietariko bi estreinaldiak izango dira, eta beste bi moldaketa berriak izango dira. Txistulariez gainera, L'atelier dantza eskolako kideek, Ugaoko (Bizkaia) Sarea abesbatzako kideek eta Gaztedi dantzari taldeko kideek ere parte hartuko dute ikuskizunean.

Bestalde, urriaren 30ean Silboberriko ordezkari bat Berlinera joango da, Felix Ibarrondori *Barne Hegoak* lanagatik egingo dioten saritze ekitaldira. Silboberrik ekoizle lanak egin zituen, eta sari eta diploma bana jasoko dute. Ekitaldian, *Berlinesaren* moldaketa bat interpretatuko dute txistu, atabal eta akordeoi batez. "Amets bat da guretzat", adierazi dute.

Durangoko aldizkariari buruzko erakusketa ikusgai dago

Bizenta Mogelen egongo da ikusgai, azaroaren 8ra arte

ERAKUSKETA • A.M.

Jada hemerrotekan baino ikusi ezin daitezkeen aldizkariak egongo dira ikusgai Bizenta Mogel bibliotekako erakusketan. Aurtengo Astola aldizkariarako idatzitako erreportaje batetik dator ideia, Gerediaga elkartearen kideen esanetan. "Gaur egun hemerrotekan bakarrik aurkitu daitezkeen aldizkariak ikusi ahalko dira. Erakusketa atontzeko, Durango Udal Artxibora eta Gerediaga elkartearen artxibora jo dugu",

esan dute antolatzaileek Bide batez, topaketa bat ere antolatu du

Urriaren 24an egin zuten aldizkari hauetan lan egin edo kolaboratu zutenen topaketa

Gerediagak. Bertan, Durango aldizkari hauetan lan egin edo kolaboratu dutenak bildu gura izan dituzte. Urriaren 24an egin zuten topaketa.

2020ra begira, bertsio gau bat antolatzeko batzarra egingo dute Sorginolan

Urriaren 25ean izango da batzarra, 18:00etan, Sorginola gaztetxean

MUSIKA • A.M.

Gazteak oholtzak hartzerantz, bertsio gaua antolatu gura dute Durango Sorginola gaztetxean. Horretarako, batzarrera deitu dute gaurko. 18:00etan izango da batzarra. Joateko aukerarik ez dutenentzat durangogp@gmail.com helbidea eskaini dute, ekarpenak egiteko. Bertsio talde bakoitzak 3-4 abesti jotzea da proposamena. "Gazteak oholtzara igotzera animatzea eta jai giroan ondo pasatzea da helburua", adierazi dute antolatzaileek.



Sorginola gaztetxearen kontzertuetariko baten irudia.

BHCK jaialdia, hardcore doinuak Durangaldean zabaltzeko lanean

Nork Zer?!, Revert, Cuero, No Regret, Unfix, Arma X eta Stronger Together taldeek parte hartuko dute jaietan

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Herritarrek hardcore doinueta hurbiltzeko asmoz, Berriz Hardcore Krew taldeak musika jaialdia antolatu du. Laugarren edizioa du jaialdi honek. "Tontoka-tontoka hasi zen guztia", azaldu du Eneko Baseta BHCKko kideak. "Billy The Kid talde costarricarra Europatik zehar zebilen biran, eta BHCKko kide baten urtegun festa egin genuen taldeagaz batera. Ondo irten zen, jendeak gogotsu amaitu zuen, eta, hortik abiatuta, kontzertu gehiago antolatzen hasi

22-40 urte bitarteko dozena bat lagunek osatzen dute BHCK, gehiengoak berriztarrek

ginen", gaineratu du. Orduetik, taldea egonkortzea lortu dute eta ha maika kontzertu antolatu dituzte. Egun, 22tik 40 urtera bitarteko dozena bat lagunek osatzen dute BHCK, eta gehiengo berriztarra izan arren, Zaldibarko eta Durangoko taldekideak ere badituzte.

Aritu eta aritu, elkartea eza-gunago egitea eta inguruetan ere saretxo egitea lortu dute. "Hardcoreak gauza on bat badu, eta hori taldeen arteko hartu-eman sarea da. Musikariaren eta zaleen arteko hartu-eman estua da. Egiten diren hartu-emanetatik sortzen da hori. Jotzeaz gainera, antolatu ere egin behar dira kontzertuak, bestela, nola mantenduko da es-

zena? Horrek ematen dio bizitzari", dio Basetak.

30 minutuko muturrekoak

Kontzertuei dagokienez, iazko formatua mantenduko dute: kontzertuak 18:00etan hasiko dira, eta festa gauerdiaurretik amaituko da. BHCKko kideentzat erronka bat izango da jaia antolatzea. "Zazpi taldeko festibala egitea lan handia da gurea lako elkarte batentzat, baina polita izango da. Zapatuan ikusiko ditugun asko lagunak dira, eta itzela izango da eurekin oholtza gainean jotzea zein azpian dantzan elkartzea", esan dute.

Hardcore doinuen adar desberdinak egongo dira ikusgai zapatuan Hiltegitzen: Nork Zer?!

Durangaldeko Unfix taldearen lehenengo kontzertua izango da zapatukoa

eta Revert taldeek punka eta abidura daramatzate zainetan. Bestalde, Cuero taldea Oi! doinueta hurbiltzen da gehiago. No Regret gasteiztarrek *Eres polvo* lan berria aurkeztuko dute, eta Arma X Madriltik datorren boskote gazte bat da. Stronger Together eta Unfix taldeak arituko dira Durangaldeko ordezkari lez. Bigarren kasuan, euren lehenengo kontzertua izango da.



Worth It, iazko jaialdian.



Stronger Together.



Nork Zer?!

Gai librea

Garazi Arrizabalaga Cabrerizo
Durangoko museoa



Bizitza abstraktu hau

Askotan pentsatzen dut gure bizitza museo batekin parekatu daitekeela. Agian, beti baten barruan nagoelako izango da, esaniezaduzue zuek berdina pentsatzen duzuen.

Gure gorputza museoa bera da, eta museoko horma bakoitza gure bizitzaren garai desberdin bat. Era berean, horma horiek betetzen dituzten koadroak gure esperientziak izango lirarteke. Batzuetan esperientzia batzuk besteak baino handiagoak dira, hormaren zentimetro gehiago betetzen dituzte. Beste batzuk, ordea, txikiak dira, baina marko deigarri bat dutenez atentzioa deitzen digute.

Koadro batzuk figuratiboak dira, errealitate zorrotza erakusten digute, benetan gertatzen dena (gure alde arrazionala, alegia) eta beste batzuk, ordea, guztiz abstraktuak dira (gure sentimenduak izango lirarteke hauek). Koloreak ere garrantzia dauka. Momentuan sentitzen duguna azaltzen digulako; kolore argiak momentu alaiak azaltzeko eta ilunak momentu garratzak adierazteko.

Pentsa ezazu momentu honetan zure museoko koadro bat egiten zabiltzala. Zure bizitza, momentu zehatz honetan, errepresentatzen duen lana izango zen. Nolako izango zen? Kolore ilunekin ala argiekin pintatua? Tamainaz handia ala txikia? Abstraktua, zure barrenak era irrazionalean azaltzen dituen ala figuratiboa, gauzak diren bezalakoak direla esaten duen lan bat?

Modu batera edo bestera bada ere, garrantzitsua gure koadro guztiekin zerbait ikastea da, eta hormetan zintzilik uztea, gure bizitza nolako izan den ez ahazteko, hori baita etorkizuna hobetzeko bide bakarra. Akatsetatik eta arrakastetatik ikasten dugulako bizitzen.

CERAMICAS
MACOBER



ERAIKUNTZAKO MATERIALA ZERAMIKA ETA GRESA

Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO Tel.: 946 811 727

katerin ardoak
iñaki uribe

25 urte
saltsan

Eguneko menuak - Asteburueta menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

BODEGUILLA



TRANA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

UDAKO 5. ARGAZKI LEHIAKETAko irabazleak



**ESKUALDEKO
argazkirik onena**

**Boto
bidezko
sariduna**


**Matxalen
Manzisor**



**Epaimahaiaren
saria**

**Aitor
Bilbao**

**Durangaldetik
KANPOKO
argazkirik onena**



**Boto bidezko
sariduna**

Iratxe Perez



Epaimahaiaren saria

**Olatz
Aizpitarte**

Hamalau umeren afizioari eskerrak, Abadiñoako Mahai-tenis Taldea berreskuratu dute

Hainbat ume kaleko mahaletan jokatzen zebiltzala ikusita, Kike Irineu mahai-tenis jokalaria abadiñoarrak taldea berpizteko aukera ikusi zuen



Kike Irineu eta Abadiño Mahai-tenis Taldean dabilzan umeak joan zen egunean, Traña-Matienako pilotalekuan egindako entrenamenduan.

MAHAI TENISA • JOSEBA DERTEANO

Mahai-tenisa bueltan da Abadiñoan. Kirola probatu gura duten ume batzuei eskerrak, orain ia 10 urte desagindako taldea berreskuratu dute, eta, laster, eskola kiroleko Bizkaiko ligak hasiko dituzte.

Abadiño Mahai-tenis Taldea kirol horren zale ziren gazte batzuek sortu zuten, 1988an. Hurrengo 22 urteetan, Bizkaiko eta Euskadiko ligak jokatu zituzten. 2010ean, ostera, taldea bertan behera utzi zuten. "Urteak aurrera joan ahala, jendeak beste zeregin batzuk zituen eta atzetik ez zetorren umerik. Errelebo falta izan zen taldea bertan behera uzteko arrazoi nagusia", adierazi du Kike Irineuk (Abadiño, 1979), taldea berreskuratu duen mahai-tenis jokalaria.

Kalea, irakaslerik onena

Taldeari ez zioten baja eman Eusko Jaurlaritzako kirol taldeen erregistroan. Pertsianak itxi eta argiak amatatu zituzten, noizbait txinparta berriro piztuko zen esperantzaz. Txinparta hori orain heldu da. "Traña-Matienan, erabilera anitzeko kirolgunearen ondoan, mahaitenisean jokatzeke mahai bi daude kalean, eta, sarritan, umeak bertara bidean ikusten nituen palak eskuan hartuta. Jendeak ere esaten zidan beharbada taldea berreskuratzen ahaleginu nintzela, eta, azkenean, animatu egin nintzen", gogoratu du Irineuk.

Ahaleginak bere fruituak eman ditu. Orain hilabete eskas hasi dituzte entrenamenduak, 10etik 13 urtera arteko 14 gazte gaz. Astelehe-

netan eta eguenetan entrenatzen dira, 17:00etatik 19:00etara, Traña-Matienako pilotalekuan, eta kirola probatu gura dutenentzat atea

zabalik dutela diote. Bertara joan daitezke entrenamendu egunetan.

Hilabete eskaseko entrenamenduek ez dute askorako ematen eta, batez ere, kalean ikasitakoagaz hasiko dituzte laster Bizkaiko Ligak, kimuetatik kadeteetara arteko mailetan. Kalea ez da eskolarik txarrrena. "Batzuek ordu askoan jokatu dute udan, eta etxean ere mahaiak dituzte. Beraz, ondo moldatzen dira", uste du Irineuk. Etorkezunera begira, gazte gehiago batzea eta apurka-apurka taldea indartzea dira helburuak.

Irineu, munduko txapelketan

Kike Irineu Abadiñoako taldean ibili zen, 2007ra arte. Harrezkero, beste hainbat tokitan jokatu du. Gaur egun, Basauri Mahai-tenis Taldean dabil, eta nabarmentzeko

moduko emaitzak lortu izan ditu beteranoren mailan. Aurtengo maiatzean, bigarren amaitu zuen Altean (Valentzia) jokaturako Espainiako txapelketa. Bestalde, irailean hirugarren geratu zen autonomien

Irineu bigarren izan da, aurtun, beteranoren mailako Espainiako Txapelketan

arteko Espainiako Txapelketan, Euskadiko Selektzioko taldekideekin batera. Bere burua ondo ikusten du eta 2020ko ekainean Bordelen (Frantzia) jokaturako Munduko Txapelketan parte hartuko du. "Maila handia egongo da eta kanporaketaren bat gainditzea izango dut helburu", dio.

Gau Krosean azkenengoz parte hartzeko aukera, bihar

KORRIKA • J.D.

Durangoko Gau Krosaren bosgarren aldia azkenengoa izango da. Antolaketa eskatzen duen lan handia eta berau aurrera eramateko lagun falta dira bertan behera uzteko arrazoiak, lasterketa antolatzen duen Durangaldea Running taldeko Dabid Garciak azaldu duenez. Baina biharko aldia betiko ilu-

sioz antolatu dute. Bost kilometroko lasterketa izango da, eta Santa Anan hasiko da, 20:00etan. Gauetz korritzen dela da proba honen berezitasun nagusia, eta edonork parte hartzeko modukoa dela. Internet bidezko izen-ematea 8 euro da (www.herririkrosa.eus) eta gaur gauerdian amaituko da. Egunean bertan 15 euro izango da izen-ematea.



Durangoko kaleetatik diseinatutako zirkuituan ibiliko dira korrikalariak.

BERRIZKO ZIKLO KROS SARI NAGUSIA

AZAROAK 3

berriburun

Master	10:00
30/40/50/60	
Kadete	11:00
Muskak eta mutilak	
Junior	11:50
Muskak eta mutilak	
Sub-23 eta Elite	
Muskak	
Haurrak	12:50
2006-ik aurrera jaioetakoak	
Sub-23 eta Elite	13:10
Mutilak	

Berriz bizikletari elkarteak

dinamika dinamika

berrizko UDALA

mazda Norkar

Deia

kutxabank

kantoi kafe-taberna

Taes TALDEAKO ESPECIALES

anboto komunikabideak

ALKIMAX

Egun

maquinaria OIZ s.l.

www.berrizbizikletarielkarteak.com

Elorrioko Nazioarteko ziklo-kros probak Felipe Orts, Lucia Gonzalez eta munduko izar gehiago batuko ditu

Zirkuituan aldaketa txiki batzuk egin dituzte iazkoa baino teknikoagoa izan dadin, antolatzaileek azaldu dutenez



Lierni Lekuona lezoarra iazko proban.

ZIKLO KROSA • JOSEBA DERTEANO

Domekan munduko ziklo-kros laririk onenatarikoak batuko dira Elorrion, 44. aldia egingo duen nazioarteko ziklo-kros proban. Gizonetan 2017ko irabazlea izango da faborito nagusietariko bat: Felipe Orts. Valentziarra sasoiaren dago. Joan zen asteburuan 14. amaitu zuen Bernan (Suitza), Munduko Kopako proban. Emakumeetan Lucia Gonzalez nabarmendu daiteke, besteak beste. Belgikatik, Frantziatik eta beste hainbat herrialdeetatik ere goi mailako ziklistak etorriko dira.

Gaszte mailetan Durangaldeko txirrindulari bi nabarmendu daitezke: Julen Aranzabal elorriarra juniorretan eta Nahia Arregi berriztarra kadeteetan.

09:00etan Master mailako lasterketak hasiko dira. Ondoren, kadeteen eta juniorren txanda

izango da. Emakumeen lasterketa 12:00etan hasiko da, eta gizonena, 13:00etan.

Munduko Kopa desio

2021ean handitu egingo dute Munduko Kopako egutegia, eta bertara batu gura dute Elorrioko ziklo-kros proban. "Gu ahaleginduko gara, duda barik", adierazi zuen Joseba Gorostiza Elorrioko Txirrindulari elkartearen ordezkariak martitzeneko aurkezpenean. Elorrioko ziklo-krosak C1 kategoria du gaur egun, Munduko Kopakoekin baino bat baxuagoa.

Horregaz batera, hainbat alde-tako batzarra iragarri zuen domekarako: "Lasterketaren ondoren, Espainiako Txirrindularitza Federazioko ordezkariarekin eta babesle batzuekin batuko gara gai horri buruz berba egiteko".

Adituaren txokoa

Alfonso Arroio
Monasterio
Kazetaria



Moketa

Hitz honekin hainbat gauza datozkit burura. Bere erabilera oso errotuta dago Ingalaterran; hainbat lekutan ikus dezakegu. Hala hoteletan nola pub askotan, aitaren batean gozotasuna eta zer esanik ez, berotasuna. Aitzitik, beste toki batekin ere lotzen dugu: bulegoekin. Beste era bateko sentipenak sortzen dizkit horrek. Makina bat dira nortasun gabekoak, hoztasuna islatu eta erabakiak hozkeriarekin hartzen diren guneak. Nago ni, ingurumaririk gabe, kirol jardunean emaitza onak lortzea baino garrantzitsuagoa dela habitat horretan bikain moldatzea. Delibero-gune horietan, lasterketa zein talde askoren etorkizuna izaten da jokoan. Gustukoa ez bazara edo be-deinkapenik ez badaukazu, jai duzu. Gaur egun, ekitaldi erraldoien aldeko apustua egin da herrikoien kaltetan. Txakur txikirik ez dagoela diote, baina ekintzek bestelakoa pentsatzen garamatzate. Tourraren irteera nagusia Bilbora ekarriko dute, munduko begi guztiak berari so eta eragin ekonomiko handiaren aitzakipean. Ez naiz diru kontuetan aditua, baina Utrechtek 15 milioi eta erdi euro gastatu zituen 2015ean, eta Dusseldorfek 12 milioi 2017an. Bere garaian, Londresek eta Edinburgok atzera egin zuten faktura zenbatekoa zen ikusita. Dirutza hori gure gizartean premia larrian daudenei bideratzea ez al da hobe? Moketako lasterketekin bainoago, asteburu askotan bidegurutzeak egiten dituztenekin nago, harrobia lantzen dutenekin. Urkiolako igoera iragana da, Udabarri klasikoak argi gorria piztuta darama. Moketa bako lasterketen hil kanpaiak entzuten dira.

Asteko kirolaria

"Inork ere ez zuen gugatik ezer ematen, eta, azkenean, txapela etxera ekarri dugu"

Basaurin jokatuako Euskal Kopan, Egurenak garaipena lortu du Madariagaz batera

Josu Eguren pilotari atxondarrak Basaurin jokatuako Euskal Kopa irabazi du asteburuan, Mikel Madariaga bikotekideagaz. Egurenak aurrerapauso bat eman du denboraldi honetan, eta sasoi onean dagoela erakutsi du beste behin ere.

Partidu borrokatu baten ondoren, Euskadiko Kopa irabaztea lortu duzu Mikel Madariaga bikotekideagaz. Pozik zaude lortutakoagaz?

Oso pozik, oraindino sinistu ezinda. Horrelako txapelketa batean norberaren izena agertzea berezia da. Gainera, inork ere ez zuen gugatik ezer ematen, eta, azkenean, txapela etxera ekarri dugu.

Zelan joan zen partidua?

Oso partidu gogorra eta borrokatua izan zen. Galtzen hasi ginen, eta 15-9 ere joan ginen, baina partiduari buelta eman eta berdintzea lortu genuen. Hortik aurrera, dena hobera joan zen. Pilota aldatzea erabaki genuen, eta tantoak egiten hasi eta 22ra heldu ginen.

Inork ere ez zuela zuengatik ezer ematen diozu. Ez zen itxarondako emaitza izan?

Inork ere ez zuen itxaroten guk irabaztea. Hasiera hasieratik, eurak ziren faborito. Teorian, Gipuzkoako bikotea gu baino gehiago zen, baita aurrez egindako txapelketa kontuan hartuta

ere. Gainera, Madariagak eta biok txapelketa honetan jokatu dugu lehenengoz elkarregaz, eta bagenituen zalantzatzko batzuk ea zelan moldatuko ginen.

Frontoian bikote lez ondo moldatzen zaretela erakutsi zenuten.

Lehenengo partidua apur bat arraroa izan zen. Frontoia oso zikin zegoen eta laban egiten zuen. Orduan, oso zaila izan zen elkarregaz zelan moldatzen ginen ikustea. Hala ere, finalean oso ondo aritu ginen. Esan behar dut niretzat partidua oso berezia izan zela, inoiz ez baitut Mikelen moduko pilotari batez jokatu, eta plazer itzela izan da. Nik altxatu



JOSU EGUREN LAZPITA

Atxondo, 2000

ezin nituen pilotak berak altxatzen zituen, eta erosoago jokatzeko hasi nintzen. Horrek lasaitasuna ematen du.

Lortu berri duzun txapela zure kirol ibilbideko garrantzitsuenetarikoa dela esan daiteke?

Bai. Orain hilabete, bigarren urtez jarraian, Bizkaiko banakako txapelketa irabaztea lortu nuen eta, horregaz batera, dudarik barik, lortu dudako txapelik garrantzitsuenaren izan da.

R.P.S. 214/06

A. Urreta podólogo

Podinara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

IMQ

Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

hitz liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#nobedadeak

ETXEAK ETA HILOBIAK
Bernardo Atxaga (2019)

ERAKUSLEIHOAN
Karmele Mitxelena & Irriarria (2019)

WESTERN STARS
Bruce Springsteen (2019)

Bulegorako zigituak
Fotolitoak

Betikoak
flexografía

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
 F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

AMBOTO
INMOBILIARIA
 Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ISD Inmobiliaria
 del Duranguesado
 Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
 inmoduranguesado@gmail.com

Fernando Uribe
 AGENCIA INMOBILIARIA
 Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
 Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

//AUKERA

ANTSO ESTEGIZ: 4 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. C.E.E:E **135.000€.**
IURRETA: 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Igogailua. **120.000€.**
BERRIZ: 155 m². 3 solairu igogailuagaz. 4 logela, 3 komun, sukalde-jangela eta egongela tximiniagaz. Estudioa. Trastelekua. **160.000€.**

KURUTZIAGA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela handia. **99.000€.**
IURRETA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. 1. mailako materialekin berzizatua. **97.500€.**
ZALDIBAR: 3 logela. Garajea. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. Berzizatua. **98.000€.**

//ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Sta. Ana. Promozio berria. 1,2 eta 3 logelakoak. Trastelekuagaz. **172.000€**-tik aurrera.
MONTEBIDEO: 135 m². 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela-jangela. 2 terraza. Ganbara. Garaje itxia. Etxe osoak kanpora ematen du. C.E.E:E
DURANGO: Berriak. Estreinatzenko. 1,2,3 eta 4 logelakoak. Ganbara. Garaje 2. C.E.E:D **183.000€**-tik aurrera. (BEZ-a barne)
TXIBITENA: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ganbara eta garajea. **215.000€.**
BERRIAK ESTREINATZEKO: 2 eta 3 logelakoak. 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Terraza. Ganbara. Garaje itxia. **130.000€**-tik aurrera.

KURUTZIAGA: 80 m². 3 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Terraza. Ganbara. BERRIZTATUA. **186.000€.**
ARTEKALE: Erdigunean. 83 m². 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Igogailua. **178.000€.**
GAZTELUA: Lursaila. 26.044 m². 6 partzelatan banatua. Fruta-arbolak ditu (600 sagarrondo, zenbait partzelatan).
MATIENA: Laubideta. 3 logela, 3 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. Ikuspegiakin. Eguzkitsua.
J.A. AGUIRRE: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. **250.000€.**

IURRETA: 2 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Terraza. Bizitzen sartzeko prest. Eguzkitsua. **115.000€.**
ERRETENTXU: 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza. Garajea aukeran. **240.000€** negoziagarria.
ATXONDO: 85 m². 3 logela, komuna eta egongela. 2 terraza. Garajea. Txokoa. Berzizatua. **148.000€.**
SAN INAZIO: 100 m². 3 logela, 2 komun, horma-armairuekin, sukalde handia eta egongela handia. Terraza. Garajea. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. ALOKAIKIRUAN, EROSTEKO AUKERAGAZ. **256.000€.**
ABADIÑO: Familiabakarra. 484m². 1.000 m²-ko lursaila eraikitzenko aukeragaz. Garajea aukeran. **229.000€.**
IURRETA: 111 m². 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela handia. 12 m²-ko terraza. Garajea eta trastelekua. **276.000€.**
BERRIZ: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. **65.000€.**

//LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIKIRUAN

MENDIZABAL: Itxia. **24.000€**-tik aurrera.
TABIRA: 30 m²-ko garajea. Argiagaz eta uragaz. **35.000€.**
ASKATASUN ETORBIDEA: **8.000€**-tik aurrera garajeak.
ABADIÑO: 160 m². Egokitua. Dena erakusleihoa 2 kaletan **185.000€**
ABADIÑO: 75m². **75.000€.**
ZALDIBAR: Salgai. Ganbara zabala. Bulegorako edo estudiorako egokia. 24-35m². Ekonomikoa.

//ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Askatasun Etorbidea. Etxebizitza ederra. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela.
DURANGO: Antso Estegiz. 3 logelako pisu ederra. Sukalde berria, komuna eta egongela. Ikuspegi ederrak.
DURANGO: Eraiki berria, 2 eta 3 logela. Azkeneko 3 etxebizitzak salgai. 178.000€-tik hasita.

DURANGO: Komentu kalea. 2 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Eguzkitsua. Igogailua eta gasa.
DURANGO: Jose Miel Barandiaran. Etxebizitza ederra. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Garajea eta trastelekua. Durango erdian.
DURANGO: Komentu kalea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Ganbara. Ikuspegi ederrak.
DURANGO: Hegoalde kalean. Eraikin txikia. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.
IURRETA
Maspekalea: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea balkoiagaz. Eguzkitsua. Igogailua.
ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.
ZALDIBAR: 3 logela, bainugela, sukaldea eta egongela balkoiagaz. Berzizatua. Trastelekua.

//LURSAILAK SALGAI

GAZTELUA: 10.000 m²-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Lekuonean. Egokia.
ABADIÑO: 1.000 m²-ko lur saila salgai. Bifamiliarra eraikitzenko baimenagaz. Zonalde egokia.
IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.
ABADIÑO: Bifamiliarra eraikitzenko lursaila, 1.000m². Informazio pertsonalizatua.
AMOREBIETA. EUBA: Txalet bifamiliarra eraikitzenko lursaila. 3.000 m²-ko lursaila.

//BASERRIAKETA TXALETAK SALGAI

MAÑARIA: Baserria salgai. Herrian bertan. 3.000 m²-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.
ELORRIO: Aldape auzoa. Baserria berzizatzenko. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 125.000€
ATXONDO: Baserri ikusgarria Martzaa auzoan. 15.000 m²-ko lursaila. Teilatua berziztua. Zonalde egokia.
MENDATA: Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliarra. Berzizatzenko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.
DURANGO: Eraikin txiki ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatzenko.
BERRIZ: Baserri ederra, Murgoiitoko zonaldean. 3 hektareako lursaila.

//BULEGOAK ALOKAIKIRUAN

ABADIÑO: 40 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita.
//GARAJE ITXIAK SALGAI
DURANGON: Garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.
//LOKALAK ALOKAIKIRUAN
ALDE ZAHARREAN: Hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.
//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI
MATIENA: 460 m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com

DURANGO 3 logela
 85,30 m²
ASKATASUN ETORBIDEA: ERAIKUNTZA BERRIA. 3 logela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua barne. Sustatzaileak zuzenean ipinitako prezioa.
285.000€ + %10 BEZa

DURANGO 89,75 m²
DURANGO: Larrasoloeta. Erreforma estreinatzenko. 3 logela, egongela, sukalde jantzia estreinatzenko eta 2 komun leihoagaz. Berogailua. Ganbara.
248.000€ C.E.E.: E

DURANGO 3 logela
 2 komun
 89,73 m²
DURANGO-LANDAKO: Babes Ofizialeko Etxe-bizitzak. Egongela eta sukalde jantzia. (balkoira irteera) Egoera onean. Garaje eta trasteleku handia.
190.150€

DURANGO 2 logela
GOIENKALE: Egongela, sukalde jantzia, despentsa eta komuna. Bikaina. Fatxada, patioa eta teilatua oraintsu egindakoak. 18 m²-ko garaje itxia aukeran.
214.900€

DURANGO 2 logela
 60 m²
ANTSO ESTEGIZ: 60 m². 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Balkoia. Igogailua desgaituentzat. Ganbara.
C.E.E:E. 180.000€

ZALDIBAR 3 logela
 59 m²
ZALDIBAR: Komuna, egongela, sukaldea eta balkoia. Orturako edo jolasgunerako lursailagaz (40m² inguru). Txabola bat ere badauka (4 m²).
87.000€

//DURANGO.

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. **180.000 € / E.E.Z=F**

ERRETENTXU: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta igogailua. **190.000 € / E.E.Z=E** Garaje itxia aukeran.

EZKURDI: 4 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz, 2 bainugela eta igogailua. **260.000 € / E.E.Z=E.**

IBAIZABAL: logela, sukalde-egongela eta komuna. **170.000 € / E.E.Z= E**

KURUTZIAGA: 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. **99.000 € / E.E.Z=F**

MONTEBIDEO: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Igogailua. **230.000 € / E.E.Z=F**

SANTIKURTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzenko 600m²-ko lurzorua. **640.000 €**

TXATXIENA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Garajea eta trastelekua. **390.000 € / E.E.Z=E**

//ABADIÑO

ZELETABE: 3 logela, egongela, sukaldea, 3 bainugela, terraza, garajea eta trastelekua. LEHEN 342.576 € / ORAIN **278.000 € / E.E.Z=E**

ZELETABE: 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 bainugela. Trastelekua eta garajea. **235.000 € / E.E.Z=E**

BERRIZ

BILBO ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela-jangela eta 3 komun. Balkoia. LEHEN 195.000 € / ORAIN **160.000 € / E.E.E=E**

ELIZONDO AUZOA: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta komuna. Balkoia. Kotxe bi kalean aparkatzeko aukera. LEHEN 142.000 € / ORAIN **134.000 € E.E.Z=G**

ERROTATXO KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. LEHEN 95.000 € / ORAIN **85.000 € E.E.Z=E**

ERROTATXO KALEA: 2 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela eta komuna. **100.000 € / E.E.Z=G**

LEARRETA MARKINA: 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia. **102.000 € / E.E.Z=E**

//IURRETA

FAUSTE: Baserria lurzoruagaz, **220.000 € / E.E.Z=G**

//MATIENA

TXINURRISOLO: 3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz eta bainugela **200.000 € / E.E.Z=F**

//OTXANDIO

ELIZABARRI: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta lonja **106.000 € / E.E.E=F**

OLETA AUZOA: banakako etxebizitza. 460 m² 3 solairutan banatuta. 4 logela, egongela, sukaldea eta 3 komun. Garajea eta txokoa. 5.000 m²-ko lursaila. **480.000 € / E.E.Z=E**

//ELORRIO

BERRIOTXOA: 3 logela, sukaldea, egongela, jangela eta bainugela. **160.000 € / E.E.Z=E**

//BERRIAK

BERRIZ

SARRIA AUZOA: Baserria 4.000 m²-ko lur sailagaz. **400.000 € / E.E.Z=E**



Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean

HIGIEZINAK
TEKNOLOGIA
LANA/NEGOZIOAK
DENETARIK
IBILGAILUAK
HARREMANAK
AISIA/KIROLA
FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragakilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23 telefono zenbakira.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztua eta lauki batean nabarmenduak. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak ETXEBIZITZAK

ETXEBIZITZAK SALDU

Abadiño. Muntzaratz auzoan, 90 m²-ko etxebizitza trastelekuarekin salgai Arlozabal kalean, 3 logelakoa. Tel.: 665 73 31 51

ETXEBIZITZAK ERRENTAN HARTU

Abadiño. Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel.: 699 17 40 23

Lana Formakuntza

LAN ESKARIAK

PERTSONAK ZAINDU

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Emakume arduratsu eta esperientzia handiduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen, gauez zein egunez. Gainera, berehala lanean hasteko prest nago. Tel.: 646 35 87 09

Lan bila nabil pertsonak

zaintzen. Mutil nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu deitu Tel.: 612 53 93 89

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Emakume nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu, deitu Tel.: 632 35 60 66

IRAKASKUNTZA

Klase Partikularrak Natur Zientzietan. DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko ikasleei klase partikular pertsonalizatuak emateko prest nago. Biologia Gradua eta DBH eta Batxilergoan irakasle izateko Masterduna, ingeles C1 maila. Ikasleak, ikasketa teknikean, edozein zientziatiko eta matematikako irakasgaiekin lagun ditzaket. Durango eta inguruetan lan egingo nuke. Kontaktuan jartzeko:

deitu edo Whatsapp-a idatzi Tel: 688 64 59 83 zenbakira.

LAN ESKAINTZAK

ETXKO LANAK

PERTSONAK ZAINDU

Adineko pertsonak eta umeak zaintzen ditut. Emakume bolibiarra naiz, arduratsua, erreferentzia onekin. Adineko pertsonak edota umeak zaintzeko lan bila nabil. Barneko langile moduan, asteburuetan edo orduka lan egiteko prest nago. Gipuzkoan zein Bizkaian. Berehalako prestutasuna daukat. Interesatuak deitu edo Whatsapp-a bidali, Tel.: 602 89 50 18 gaztelaniaz mesedez.

Barneko langile gisa lan bila. Adineko pertsonak (barneko langile) edota haurrak zaintzeko prest nago. Baita etxeko garbiketara lanak egiteko, arropa litzeko eta sukaldaritzara lanak egiteko ere (40 urte). Berehala hasteko prestutasunarekin:

Tel.: 644 55 83 90

Barneko langile gisa lan bila.

Barneko zein kanpoko langile gisa lan bila ari naiz. Orduka ere lan egiteko prest. Adinekoak edo haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Deitu Tel.: 643 72 71 98 telefono zenbakira.

Pertsona nagusiak zaintzeko.

Neska euskalduna naiz eta esperientzia daukat zaintzaile gisa. Eusko Jaurlaritzaren habilitazioa ere badut. Pertsonak zaintzeko prest nago, etxean, ospitaleetan, edonon... ordu solteak lanaldi osoa... Tel.: 658 03 08 36

Mallabian pertsona bat behar dugu andre bat zaintzeko.

12:00etatik 19:00etara Mallabian andre bat zaintzeko pertsona bat behar dugu. Euskaraz jakin behar du. Mallabiako edo Ermukoa bada hobeto. Tel.: 695 78 78 99

Umeak zaintzeko eta klase par-

tikularrak emateko prest.. 0-12 urte bitarteko umeak zaintzeko edota klase partikularrak emateko prest nagoen 24 urteko neska bat naiz. Haur Hezkuntzako unibertsitate gradua bukatzen ari naiz eta esperientzia handia daukat mundu honetan. Elorrio eta inguruetan lan egiteko prest nago. Interesatuak nirekin kontaktuan jarri Whatsapp bat idatziz edo deituz Tel.: 692 71 66 46 zenbakira.

IRAKASKUNTZA

Portugeseko klase partikularrak. Irakasle portugesea behar da klase partikularrak emateko Durangon. Tel.: 678 29 11 67

Hizkuntzak praktikatzeko berbalagun bila nabil. Ingelesa eta frantsesa ikasten ari naiz, eta antzeko interesa duen Durango inguruko norbaitekin harremanetan jarri nahiko nuke, elkarrekin hitz egiten mintzaira eta ulermena hobetzeko asmoz. Tel.: 617 37 89 33



VERA ALONSO

ASTE HONETAN

PILAR KALTZADA

DOAN

Ttop euskarazko aldizkari digitala, deskargatu astero dohainik zure mugikor edo tabletean.



ttop
Irakurri, ukitu,
ikus, entzun.

Informazio gehiago:
ttop.eus



DESKARGATU
Play Store-n

DESKARGATU
APP Store-n

Botikak

BARIKUA, 25 · 09:00-09:00

BALENCIAGA
Ezkurdi plaza 8 - DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN
Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - ZORNOTZA

ZAPATUA 26 · 09:00-09:00

UNAMUNZAGA Muruetatorre
2C - DURANGO

GOIRIA, MARI CARMEN
Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

09:00-13:30

BALENCIAGA
Ezkurdi plaza 8 - DURANGO

CAMPILLO Montevideo
etorb. 24 - DURANGO

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO

NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO

DE DIEGO Intxaurren
22. - DURANGO

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA
Berrio-Otxoa 6 - ELORRIO

EGUREN, ISABEL
Trañabarren 15. - ABADIÑO

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - ZORNOTZA

GUTIERREZ, IBAN Txiki
Otaegi 3 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente
Kapanaga 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 27 · 09:00-09:00

IRIGOIEN Bixente
Kapanaga 3 - IURRETA

GOIRIA, MARI CARMEN
Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 28 · 09:00-09:00

DE DIEGO Intxaurren
22. - DURANGO

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - ZORNOTZA

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

MARTITZENA, 29 · 09:00-09:00

ETXEBARRIA
Montevideo etorb. 2. - DURANGO

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 30
09:00-09:00

CAMPILLO Montevideo
etorb. 24 - DURANGO

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - ZORNOTZA

EGUENA, 31 · 09:00-09:00

MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - ZORNOTZA

Eguraldia

ZAPATUA 🌧️ 22° / 10°



DOMEKA 🌧️ 20° / 11°



ASTELEHENA 🌧️ 18° / 13°



MARTITZENA 🌧️ 13° / 8°



EGUAZTENA 🌧️ 12° / 6°



EGUENA 🌧️ 18° / 4°



Zorion Agurrak



GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11. DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrekin batera.



Durangoko **Angelek** eta bere iloba **Liherrak** urteak egin dituzte urriaren 15ean eta 23an. Zorionak eta mosu handi-handi bat familiaren partez.



Zorionak etxeko "zoro" bi hauei familiako danon partez. Egun ederra pasa!



Urriaren 28an **Haizeak** 5 urte egingo dauz. Zorionak zure lehengusuen partez!



Zorionak gure etxeko neska haundixe!



Zorionak, **Aitor!** Urriaren 29an, martitzena, zure urteguna da. Musu pilo bat, batez ere, Aroaren partez. Muuuu.



Zorionak, **Elixabete**, zure zortzigarren urte-gunean etxeko guztien partez. Ondo pasa eta gozatu zure eguna, familiakoekin eta lagunekin. Besarkada eta musu handi bat.

“Ez dago argazki perfekturik; momentua da perfektua, ez argazkia”

Aitor Bilbaok lehenengoz parte hartu du ANBOTOk antolatutako udako argazki lehiaketan. Olatz Aizpitarterentzat, bestalde, ez da lehenengo aldia. Mendi korrikalariak dira biak, eta epaimahaiak euren argazkiak izan ditu gogokoen

Olaz Aizpitarte Uriarte (Elorrio, 1990)

Aitor Bilbao Ortega (Durango, 1996)
• ANBOTOk argazki lehiaketako epaimahaiaren saria irabazi dute

Eskualdeko argazkirik onena



Epaimahaiaren saria Aitor Bilbaok

Durangaldetik kanpoko argazkirik onena



Epaimahaiaren saria Olatz Aizpitarte

‘Entzun...’ eta ‘Durangaldeko zaindari’. Olatz Aizpitartek eta Aitor Bilbaok argazki bi horiek irabazi dute, hurrenez hurren, ANBOTOk antolatutako udako argazki lehiaketako epaimahaiaren saria, aurren. Mendia maite dute biek, eta mendia da protagonista ateratzen dituzten argazkietan.

Zer erakutsi gura izan duzue saritutako argazkietan?

Aitor: Gure ingurua erakutsi gura izan dut. Gure mendiak islatu. Amildegia ganean dagoen lagunaren perspektibagaz ere jokatutako, ingurua goitik begiratu nola ikusten den erakusteko. Alluitzen atera nuen.

Olatz: Argazkiak naturaren lasaitasuna, bakardadea eta bakea islatzen ditu. Eslovenian egin nuen; laku batean zegoen arrantzalearen bakardadea apurto genuen. Mendira joan aurretik, goizean goiz, ateratako argazkia da.

Bion kasuan mendia da lotura. Zer da zuentzat mendia?

Aitor: Dena. Eguneroko bizitzaren parte da. Asko ibiltzen naiz mendian: korrika, bizikletan, eskiekin... Poza ematen dit, harmonia.

Olatz: Dudan denbora librean ematen dut nik ere. Bizikletan, korrika edo lagunekin. Dena dut mendia. Bakea ematen dit eta beharrezkoa dut hara joatea.

Noiztik duzue argazkigintzarako interesa?

Aitor: Urte gutxi batzuk dira argazkiak ateratzen hasi nintzela. Lagunentzat atera izan ditut batzuk, baina ez dut argazkigintzan modu berezian jardun. Udan, bigarren eskuko kamera bat erosi nuen eta lehiaketara aurkeztera animatu nintzen, proba egiteko. Ez nuen itxaroten irabaztea. Oso pozik hartu nuen berria.

Olatz: Nik ere ez nuen itxaroten irabaztea. Betidanik izan dut zaletasuna, baina mugikorragaz atera izan ditut argazkiak. Mendiak eta paisaiek emandako aukerak ikusita, kamera erostea erabaki nuen. Ordutik, pare bat ikastaro egin ditut.

Zeri ateratzen diozue erretratua?

Aitor: Paisaiei eta naturari lotutako argazkiak ateratzen ditut.

Olatz: Mendiari. Kanean ere ateratzen ditut erretratuak, eta kirola ere gogokoa da.

ten ere bai, adibidez. Baina, normalean, naturagaz lotutako argazkiak ateratzen ditut.

Baduzue erreferenterik?

Aitor: Seb Montaz-Rosset alpinista frantsesa, adibidez.

Olatz: Jimmmy Chin, adibidez. Hemengo ingurukoa, Lehiar. Asko gustatzen zait.

Badago argazki perfekturik?

Aitor: Ez. Momentua da perfektua, ez argazkia.

Olatz: Gainera, norberaren ikuspuntua ere hor dago. Oso erlatibo da hori.

Zer behar du argazki on batek?

Aitor: Argi egokia, egunaren momentu egokia.

Olatz: Egitura on bat.

Mendi korrikalariak zarete biok. Modan dagoen kirola da.

Aitor: Bai. Betidanik ibili izan naiz mendian; gurasoengandik dator kit zaletasuna. Inoiz ere ez dut helburu izan korrika egitea, baina orain lehiatzen hasi naiz, eta gehiago ibiltzen naiz korrika mendian.

Olatz: Orain urte bi hasi nintzen lehiatzen, baina modu lasaiagoan ere disfrutatzen dut mendiaz, lagunekin adibidez. Modan dago, bai, baina zentzunez jokatutako behar da.



Lauhortza

Amaia Ugalde Begoña Kazetaria



Gu, txikiok

Asisko Urmeneta marrazkilaria-ri entzun diot euskaldunok oso barneratuta dugula gure herria “txikia” dela. Ezetz aldarrikatzen du berak, daukagun tamainakoak garena.

Esango nuke, herri zatitu eta eder honetan, txikiak garena sinestuta hartzen direla erabaki asko. Eta, diotenez, gaitza da emaitza berriak izatea tortilla beti errezeta berarekin prestatuz gero.

Beraz, bai, txikiak izango gara eta txiki izaten jarraituko dugu telebistan audientzia handiagoa emango diguten hiztunei begira bagaude; txiki, gure herria handitzeko formulatuko bat entitateen izenak eta kanpainak ingelesez sortzea dela sinesten badugu.

Harro egongo gara Europan izan den bigarren telesailik luzeena izan zelako Goenkale, eta beste behin elkarrizketatuko ditugu orduko aktoreak ETBn, telesail berriak filmatu ordez. Txikiak izango gara, bai, euskara eta gure kultura biziberritzeko lanean dabiltzan ehunka sortzaile eta profesionalen lana aitortu beharrean, euren artean konpetizera eta prekaritatera kondentzen baditugu.

Eta, bitartean, gurean, geuk egin ez ezean beste inork sortuko ez dituen proiektuak jaiotzen dira:

Gurean, Zu Zeu atariko lagunak eta Bikoztaile Euskaldunen Elkar-atea istorio ederrak eskaintzen hasi zira podcast edo audio bidez *Euskal Gaizkileak* izeneko seriean; gustura entzun dut Martin Larralderi buruzko kapituluak. Gure herri honetan, antzezlanak sortzeko, hiru antzerki taldeko tandem zoragarriak egiten dira. Hemen, hausnarketarako gaitasun itzela dago, eta, esaterako, batzuk lanketa handia egiten ari dira ikuspuntu feministatik bertso mundua aldatzeko.

Izan ere, batzuek oraindik sinesten ez duten arren, gure tamainan, handia da egin dezakegun guztia.

